# INFORMAZIO EZ-FINANTZARIOAREN EGOERA

## Jasangarritasun-txostena

BATZ Group

# 2022

Data: 2023/3/29

# AURKIBIDEA

I. GURE NEGOZIO EREDUA ... 4
*1.1 NOR GARA* ... 4
*1.2 ANTOLAKETA-EGITURA 2022* ... 6
*1.3 GURE ERRONKAK* ... 7
*1.4 NOLA EGITEN DUGUN* ... 8

II. POLITIKAK ... 15
*2.1 POLITIKEN DESKRIBAPENA* ... 15
*2.2 POLITIKEN EMAITZAK* ... 17

III. ARRISKUAK EPE LABUR, ERTAIN ETA LUZERA ... 19

IV. ADIERAZLEAK, KPI´AK ... 21
*4.1 KPI´ak* ... 21
*4.2 MATERIALTASUNAREN ANALISIA* ... 21
*4.3 GURE INTERES-TALDEAK* ... 22

V. INGURUMEN ALDERDIAK ... 24
*5.1 JARRAIPENA, GURE INGURUMEN-INPAKTUA* ... 25
*5.2 EKONOMIA ZIRKULARRA ETA HONDAKINEN PREBENTZIO ETA KUDEAKETA* ... 28
*5.3 BALIABIDEEN ERABILERA JASANGARRIA* ... 30
*5.4 KLIMA-ALDAKETA* ... 32
*5.5 BIOBIODIBERTSITATEAREN BABESA* ... 33

VI. GIZARTEARI ETA LANGILEEI BURUZKO GAIAK ... 34
*6.1 ENPLEGUA* ... 36
*6.2 LANAREN ANTOLAKETA* ... 42
*6.3 OSASUNA ETA SEGURTASUNA LANEAN* ... 43
*6.4 GIZARTE-HARREMANAK* ... 46
*6.5 PRESTAKUNTZA* ... 46
*6.6 DESGAITASUNA DUTENEN IRISGARRITASUN UNIBERTSALA* ... 48
*6.7 BERDINTASUNA ETA DIBERTSITATEA* ... 48

VII. GIZA ESKUBIDEAK ... 50

VIII. USTELKERIA ETA EROSKERIA ... 53

IX. GIZARTEA ... 54
*9.1 GARAPEN JASANGARRIAREKIN ENPRESAK DAUKAN KONPROMISOA* ... 54

X. AZPIKONTRATAZIOA ETA HORNITZAILEAK ... 57

XI. KONTSUMITZAILEAK ... 58

XII. INFORMAZIO FISKALA ... 59

XIII. INFORMAZIO EZ-FINANTZARIOAREN ETA DIBERTSITATEAREN LEGEAREN BETETZE-TRAZABILITATEA ... 60

XIV. KANPO EGIAZTAPENA ... 71

Finantza arlokoa Ez den Informazioaren Egoera Kontsolidatua BATZ, S. COOP kooperatibaren eta haren baitako sozietateen (aurrerantzean, Taldea) 2022ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokiona, Taldearen Kudeaketa Txosten Kontsolidatuko parte dena.

Dokumentu honetan jasota dago 2018ko abenduaren 28ko Informazio Ez-finantzarioaren eta Dibertsitatearen Legeak eskatzen duen informazioa, eta honako hauei buruzko azalpen xeheak ematen ditu: BATZ Taldearen negozio-ereduaren arriskuen kudeaketaren alderdi nagusiak, iraunkortasun-planak, ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko gaiak, Giza Eskubideen errespetu- eta sustapen-politika, ustelkeria eta eroskeria prebenitzearekin zerikusia duten gaiak, eta gizartearekiko eta bertako interes-taldeekiko harremanaren kudeaketa.

Gainera, hauek ere azaltzen dira: Taldearen negozio-ereduaren laburpena, aurreko gaiei dagokienez hartutako politiken eta neurrien deskribapena, politika horien emaitzak, gai horiekin zerikusia duten eta Taldearen jarduerei lotuta dauden arrisku nagusiak, arrisku horien kudeaketa eta emaitza ez-finantzarioen funtsezko adierazleak.

Finantza arlokoa Ez den Informazioaren Egoera nazioarteko estandarraren –Oinarrizko Bertsioaren– eta haren printzipio guztien arabera landu da. Izan ere, 2018ko Informazio Ez-finantzarioaren Legeak gomendatzen du. Gainera, kanpo-egiaztapena egiten du EQA sinadura independenteak

# I. GURE NEGOZIO EREDUA

***1.** - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

## *1.1 NOR GARA*

BATZ gara, automobilgintzaren sektorerako produktuen eta zerbitzuen hornitzaile globala. 1963an sortu ginen eta Igorren (Bizkaia) dugu egoitza. Gaur egun, industria-talde sendo batetan bilakatura gara, gure profesionalen konpromisoari eta bezeroarekiko orientazioari esker.

Gure bezeroekin batera eboluzionatzen eta hazten ari gara, hasierako fasetik soluzio berritzaileen horniduran inplikatuz. Segurtasun-, arintze- eta ergonomia-ezaugarriak dituzten produktuen diseinuan eta fabrikazioan jartzen dugu arreta, mugikortasunaren sektoreko joera nagusiekin guztiz bat datozen mugikortasun efizienteagoa eta jasangarriagoa ahalbidetzen baitute.

BATZ Group mundu osoan zehar banatutako 1.300 profesional inguruk osatzen dugu, eta hainbat ekoizpen-instalazio eta bulego ditugu. Horri esker, gure bezeroei beren egungo eta etorkizuneko erronketan lagun diezaiekegu, dauden tokian daudela.




### *Gure identitatea*

BATZ Arratiako bailaran, Bizkaian, kokatutako kooperatiba bat da, nazioarteko proiekzioa duena eta, mende erdi baino gehiagoz, hedapena eta izaera globala bere ingurunearekiko errotze eta konpromisoarekin ederki bateratzen jakin duena.

Izan ere, kooperatiba-ereduan oinarritutako taldea garenez gero, dagoeneko bidea luzea egin dugu eraldaketa sozioekonomikoko proiektu modura. Baina 2022an zehar, proiektu kooperatiboa berrikusi nahi izan genuen organoan lerrokatu asmoz, langile guztien ekarpena eta konpromisoa bilatuz, Batz, berriro, proiektu kooperatibo errentagarri eta jasangarria izan dadin. Horri esker, zalantzan beteriko egoera konplexu batean, erabakiak modu arin eta egokian hartu ahal izan ditugu.







## *Parte-hartzezko eta partekatutako hausnarketa*

**BATZ** proiektu kooperatibo **lehiakor** eta **errentagarria** da, **pertsona konprometitu**, **solidario** eta **ekintzaileek egindako eginahalaren ondorio.** Gure ezaugarriak dira:

• Printzipio Kooperatiboekiko gure konpromisoa, enpresa-eredu ezberdina garatzeko oinarria: demokratikoa, solidarioa, berdintasunezkoa eta iraunkortasunarekin eta gizarte-eraldaketarekin konprometitua.

• Legatu kooperatiboan sinesten dugu. Horregatik, hurrengo belaunaldiei, enpresa-proiektu sendo eta hobea ez ezik, pertsonentzat eta planetarentzat jasangarriagoa izango den garapen-eredu bat utzi nahi diegu.

• Enpresa orokorra gara eta, gure printzipioekin bat etorriz, gure proiektuan lan egiten duten pertsonen eta txertatuta gauden lekuen garapen sozioekonomikoarekiko konpromisoa dugu.

• Gure jatorria eta gure sustraiak Arratian daude. Horregatik, modu globalean jardutea erabaki dugu, Arratian eta Bizkaian garapenerako abaguneak sortzeko hastapeneko xedeari erantzuten jarraitzeko, balio erantsiko lana sortuz, aberastasuna banatuz eta mundura irekita dagoen gizarte bidezkoago, solidarioago, anitzago bat eraikitzeko orotariko ekimenak babestuz, berezko euskal nortasuna sustatuz.

Horretarako, eratzeko, berebiziko garrantzia izan zuen kooperatibako organo guztien parte-hartzea izatea, MONDRAGONEKO Automobilgintza Dibisioaren eta Otalora lantaldearen parte-hartzea izateaz gain. Proposamena Batz osatzen duten pertsonen kolektibo osoari aurkeztu zitzaion, talde txikitan, parte-hartzea eta ekarpenak ahalbidetzeko, eta modu positiboan baloratu zen

## *Gure negozioa*

Automobilgintzaren sektorean garatzen dugu gure jarduera, zehazki ekoizpen seriatuaren eta ekipamendu-ondasunen arloetan.

Gure profesionalek esperientzia handia dute material eta prozesu berrien bidez konposite-egitura arinak diseinatzen eta fabrikatzen, baita osagai aerodinamiko aktiboak ere; honek, gure kualifikazioa eta aintzatespena kontrol-sistema mekaniko eta mekatronikoen diseinuan eta fabrikazioarekin batera, lehen mailako hornitzaile bihurtzen gaitu automobilen fabrikatzaile nagusientzat. Gainera, material aurreratu berriak ezartzeko irtenbideak garatzen ditugu, altzairu eta aluminio-mota ugariko konformazio-prozesuak hobetuz, bai beroan bai hotzean, eta zerbitzu integral bat eskaintzen dugu, produktuaren diseinu kontzeptualetik hasi eta doikuntzaraino.




2022. Urtean gure presentzia areagotu da aeronautikaren sektorean jarduerarako espezifikoak diren baliabideekin. Asmoa trokelgintzako egungo negozioa, aeronautikaren sektorean dauden bitartekoak konformatu eta saturatzeko ezagutza aurreratuak merkataritza eran ustiatzetik abiatuz enplegu espezializatua sortzera begirakoa, dibertsifikazio-jardun bat bultzatzea da.

## *1.2 ANTOLAKETA-EGITURA 2022*

BATZ Groupek printzipio kooperatiboetan oinarritutako enpresa-ereduaren alde egin du, konpainiaren balio bereizle gisa.

Jarduteko printzipio horiek korporazio-esparruan islatzen dira, taldearen kudeaketaren nortasun-ezaugarri batzuen bidez. Ezaugarri horiek negozio bakoitzaren autonomia eta erantzukizuna arau komun batzuk ezartzearekin eta erabaki partekatuak hartzearekin uztartzen dituzte. Gure antolaketa-eredua, funtsean, arestian deskribatu negozio-unitateetan egituratuta dago, negozioaren, produktuaren, prozesuen eta proiektu estrategikoen garapenean oinarritzen direnak, eta sozietate-partaidetzaren eskema hau du:

Era berean, BATZek bere sozietate- eta negozio-egiturari egokitutako zuzendaritza-organoak ditu. Horien bitartez, konpainiaren funtsezko harremanak eta erabaki estrategikoak batera ditzake.

Automobilgintzako merkatu global baterako erakundea, non integrazio- eta zeharkakotasun-mailak indartzen diren. Egitura hori Talde Zuzendaritzaren eta negozio-jardueraren arteko hurbiltasuna eta kohesioa bultzatzen du, hala nola sail desberdinen artekoa, bezeroarenganako orientzazio nabarmenarekin, hurrengo irudian erakusten den bezala.






## 1.3 GURE ERRONKAK

Automobilgintzaren joera berriak, hala nola ibilgailuaren digitalizazioa, erabilera partekatua eta elektrifikazioa, industria horren egungo bilakaera baldintzatzen eta agertoki berriak sorrarazten ari dira, hasiera batean ezezagunak izan daitezkeen agertokiak, hain zuzen. Izan ere, dagoeneko EASCY akronimoa erabiltzen hasi da. Termino horrek, ingelesezko Elektrikoa, Autonomoa, Partekatua eta Konektatua hitzak biltzeaz gain, Urtero Eguneratua ere hartzen du bere barruan.[1]

Fig. 1 Market model of the transformation of the automotive industry




[1] 'Eascy: automobilgintzaren sektorea eraldatuko duten bost dimentsioak', PwC.

Horrela, sektore hain orokor batean lan egiten dugun aldetik, oso adi egon behar dugu nazioarteko mugimendu ekonomiko eta politikoetara; izan ere, kanbio-tasak edo lehengaien prezioa baldintzatu edo protekzionismo handiagoa eragin dezakete.

Paradigma-aldaketa horrek norbere burua berrasmatu beharra dakar, mugikortasun adimentsu eta jasangarriari erantzuteko. Gai izan behar dugu dinamika horri egokitzeko, balio-katean eraginkortasun-guneak partekatuz eta bilatuz modu integralean. Horren guztiaren ondorioz, inbertsioak egin beharko dira, kontuan izanda commoditien hornitzaileen errentagarritasuna kolokan dagoela. Erronka horiek ondorioz, harremanak ekosistema handiago batean ehundu eta adi egon beharra dugu, ez gure balio-katearen eremuan bakarrik, baita ekonomiaren edo geopolitikaren esparruko edozein mugimenduri dagokionez ere. Izan ere, oso disrupzio sakonak eragiten dituzte, azken urteotan ikusi dugun bezala.

### *2022, sektorerako zailtasun berri bat.*

2022. urtea zalapartatsua izan da automobilgintzaren sektorerako, ekaitz perfektua:

- Lehengaien prezioetan lehen ezagutzen ez ziren igoerak: altzairuak, aluminioa, polimeroak (petrolioaren deribatuak), eta beste zenbait.
- Osagaien hornidurarik eza, bereziki mikrotxip, erdieroaleena eta osagai elektronikoena. Horrek zalantza eta hegazkortasun handia eragin du eskarien kudeaketan: aldaketak eta atzerapenak programetan, ibilgailuen ekoizpenaren beherakada.
- Energia-kostuen igoera: gasa eta elektrizitatea, OEM bezeroaren prezioan jasanarazi ezin daitezkeenak
- Logistikako kostuen igoera:
- Pandemiatik eta Txinako "0" Covid politikatik eratorritako arazoak.
- Ukrainako gerra-gatazkak egoera okertu baino ez du egin:
    - Energia-kostuen igoera gehiago
    - Automobilen fabrikaziorako instalazioen ekoizpenean etenaldiak Europa erdialdean Ukrainako osagaiak ez izatearen ondorioz (kableak), instalazio horietako hornitzaile guztiengan izan duena eragina.

Horrek guztiorrek bere eragina izan du automobilgintzaren hornidura-katean

- Marjinen galera, jasanarazi ezin daitezkeen kostuen igoera handien eta ibilgailuen ekoizpenean izandako beherakadak eragindako negozio-bolumenaren jaitsieraren ondorioz. Bezeroekin negoziatzeko gaitasun urria




- Bolumenen galera, merkatua murriztearen eta ibilgailuen ekoizpenak behera egitearen ondorioz.
- Likidezia-arazoak enpresetan.

# 1.4 NOLA EGITEN DUGUN

Azken urteotako zailtasunak eta aurretiaz deskribatutako sektorearen egoera kontuan izanik 2022. urteari begirako lehentasunak jarduerak birdimentsionatzea, finantzazioa lortzea eta negozioen errentagarritasuna lortzea dira. 4 dira jorratutako erronkak:

- Trokelgintzako negozioa 12 milioi euroko fakturaziora birdimentsionatzea, Batz-en globaltasunari baliabideak kendu gabe.
- Automobilgintzaren negozioa hobetzea, 200 milioi euroko negozioaren berreskurapen batekin, eta negozioak bi norabidetan berrantolatuz:
    - Etxekoa, Bizkaiko eremuari begirakoa, Igorre eta Zamudioko gure instalazioak barne hartzen dituena.
    - Nazioartekoa, Txina, Mexiko eta Txekian ditugun proiektuak barne hartzen dituena.

  Kalitatea hobetzea eta nazioarteko filialetan errentagarritasun positiboko bidea berreskuratzeko aurrerapauso bat ematea
- Diruzaintzaren kudeaketa zorrotza eta banku-konpromisoak berriro negoziatzea
- Egitura korporatiboa eta orokorra marjina sortzeko egiazko gaitasunera egokitzea:
    - Egiturarekin lotutako gastu finkoak gutxitzea
    - Inbertsioak gutxitzea, onarpen-prozesuak modu zorrotzean kontrolatuz

- Langileen gastuen ondoriozko zifra murrizteko eginahal kolektiboak
- Pertsonen kudeaketa, Batzi behar gehien dagoen arloan ekarpena egin diezaieten.

Horretarako, 4 erronka nagusiri begira ipini gara, eta mugikortasun-kontzeptu berria da automobilgintzaren sektoreak, gure jarduera-eremuak, ebatzi beharreko gairik garrantzitsuena. Eraldaketa horrek iraunkortasuna osatzen duten "kolore" guztiak hartu behar ditu aintzat. Giza kapitalean inbertitzea, igorpen-neutraltasuneranzko urratsak egitea, kudeaketa-eredu aurreratuak izatea eta gizartearen aurreikuspenak betetzea dira, besteak beste, aldaketa hori sostengatzen duten eta gure sektorean lehiakortasunari eustea ahalbidetuko diguten gakoetako batzuk.

Hori dela eta, posizionamendu eta estrategia argia izan beharra dugu, produktuak, prozesuak eta negozio-eredua bera egokitzeko aukera emango diguna, gure iraunkortasuna ziurtatuko badugu.

## *Gure helburu eta estrategiak*

**Mundu hobea egiten laguntzea, mugikortasunaren alorrean soluzio global, berritzaile eta jasangarriak emanez.**




Dimentsio eta posizionamendu optimoak dituen proiektua izanik, aurrera egiten jarraitzeko inguru aldakor, anbiguo, zalantzazko eta konplexuan.




Bereizten gaituen balioa areagotuz, geure produktuen iraunkortasuna sustatuta, eta, era berean, geure eskaintza globala eta posizionamendu “glokala” indartuz, produktu, teknologia eta bezero anitzeko ikuspuntuarekin.




Geure lehiakortasuna bermatuz, estandarizazioaren eta eraginkortasunaren bidez, eta gure prozesuen ingurumen-inpaktua murriztuta.




Gure taldean dagoen dibertsitatearentzat lekua duen erakundea izanik, eta BATZ dagoen komunitateetan berau integratzea sustatuz. *(Kontsultatu ekimenak txosten honen 6. eta 9. ataletan).*

Hori guztiori, BATZen Xedea lortzeko guztiz lagungarriak izango diren motor eraldatzaileen bultzadarekin.







***Berrikuntza, ziurgabetasunaren aurrean egokitzeko tresna.***

Mundu hobea egiten laguntzea, mugikortasunaren alorrean soluzio global, berritzaile eta jasangarriak emanez. Hala dio gure enpresaren xedeak, eta hala kokatzen gara etorkizunaren aurrean.

Soluzioak emanez, prestazio hobe eta hautemandako balio handiagokoekin –egiturak arintzea, aerodinamika aktiboa eta mekatronika, esaterako–; eta erantzuna emanez automobilgintzaren sektoreak planteatzen digun erronka globalari: mugikortasun konektatuaren kontzeptu berria, eraginkorragoa eta ingurumenarekiko adeitsuagoa. Eta, hain zuzen ere, azken puntu horretan ari da sendotzen BATZ enpresa jasangarria izateko duen konpromisoa, gure produktu eta prozesuen ingurumen-inpaktuaren ezagutza sakonduz, eta balio-proposamen berriak identifikatuz, lehiakortasuna hobetzeko.

Egin ditugun kalkuluen arabera, BATZen karbono-aztarnaren % 88k gure hornidura-kateekin du zerikusia, eta, hartara, zenbait erronka ezarri ditugu, bakoitza bere helburuekin. Lehentasunekotzat dugu ekonomia deskarbonizatua bultzatzea, erakundeek, organismo arautzaileek eta OEMek eurek adierazitako ildo estrategikoen bidetik. Bidaia horri ekin ahal izateko, gure emisioen kalkuluan aurrerapenak egiten gabiltza, haien ondorio guztiei dagokienez. Era berean, etorkizunerako agertokiak finkatzen ari gara, NET ZERorantz joateko bide-orria planifikatzera eraman gaitzaten. 2021eko ekainean, gainera, **Basque Ecodesign Center** osatzen duten enpresen sarean sartu ginen. Eusko Jaurlaritzak sustatu du ekimen hori, ingurumen-inpaktuen prebentzioa erraztuko duten metodologiak pilotatzeko eta proiektu berritzaileak garatzeko, eta, aldi berean, hura osatzen duten enpresen eta haien balio-katearen lehiakortasuna hobetzeko. Jarduketa hori gure beste lan-ildoetako baten barruan dago, zeinaren helburua geure hornidura-katea modu jasangarrian finkatzea den, eraginkortasuna eta fidagarritasuna uztartuta, eta, era berean, haiekin batera $CO_2$-a gutxitzen laguntzeko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko estrategiak eta helburuak zehaztu eta inplementatzea.




Gainera, materialen arloa lantzen jarraitzen dugu, baita ekonomia zirkularreko printzipioak geureganatzen eta lankidetza-programetan parte hartzen, hala nola MIDAS (Hazitek), ingurumen-inpaktu txikiagoko material berriak bilatzeko, eta ALMA (EU Horizon), ibilgailu elektrikoen egituraren pisua murrizteko, emisio baxuko mugikortasuna lortzeko bidean.

Ziur gaude munduak beste iraunkortasun-paradigma bat behar duela, balio-ziklo osoa kontuan izango duena eta proiektu globalei erantzuten jarraitzeko aukera emango diguna. Eta enpresak, horretan guztian, aldaketa-eragileak gara. Izan ere, gure xedean berariaz esaten denez, iraunkortasuna gai estrategikoa da gure interes-talde guztientzat.

## *Baterako berrikuntzaren bidez balioa sortzen*

BATZen, oso barneratuta dugu berritzea erronkei eraginkortasunez aurre egitea delako premisa. Gure berrikuntza- eta ekintzailetza-kultura eremu teknologiko hutsetik harago doa, eta gure balio-proposamen osora hedatu dugu. Urteak daramatzagu elkarlaneko ingurunean aurrera egitearen alde lanean, jomugan gure gaitasunak modu estrategikoan zabaltzea eta sendotzea izanik, unibertsitateak, zentro teknologikoak eta 'startup'-ak barne hartuko dituen ekosistema saretuz.

Azkenik, BATZ Group eragile aktiboa da bere berrikuntza- eta ekintzailetza-ekosistemaren barruan. Inguruneko hainbat eragilerekin etengabeko harremanean, aipatzekoa da etengabe parte hartzen dugula organo publiko-pribatuek koordinatutako ikerketa-programetan.

## *E-mobilityan aurrera egiten. 2022ko ikerketa-programak.*

## *Bateriak*

SABRE



Hazitek Proiektu Estrategikoa, Trebakuntza lortzeko eta Battery pack bat garatzeko eBus-en merkaturako. Helburua ibilgailu elektrikoetarako baterien osagaiei buruzko ezagutza handitzea da, bateria horien kanpoaldeko zein barrualdeko osagaiei dagokienez, haien hornikuntza modu lehiakorrean egiteko aukerak aztertuta. Moduluak garatu eta sortuko dira partzuergoaren lankidetzarekin, horiekin Battery Pack funtzional bat sortzeaz gainera

Project co-financed by the EU through the European Regional Development Fund (ERDF), and funded by the Basque Goverment. 2021-2027.

## ***Ekonomia Zirkularra***

MIDAS




Hazitek Proiektua, birziklatutako materialen iturriak bilatzeko eta exijentzia handiko egiturazko piezetan eta prozesu ez-konbentzionaletan erabiltzea ebaluatuta. BATZek gidatzen du proiektu hau, zeinean nahaste berriak ikertzen ditugun, egiturazko osagaietarako material birziklatuak ekarriko dituztenak, ibilgailuaren iraunkortasun integrala handitzeko aukera emango diguten teknologia berritzaileen bidez. Hain zuzen ere, BATZen hiru frogagailu analizatuko ditugu, material eta teknologia desberdinetakoak. Horietako 2 gure portafolioan dauden dagoeneko, eta hirugarren egiturazko frogagailu berritzaile modura, plastikozko Dash Panel bat gehituko dugu OEM baten lankidetzarekin, metaletik konpositera eboluzionatuko duena.

.

Project co-financed by the EU through the European Regional Development Fund (ERDF), and funded by the Basque Goverment. 2021-2027.

ALMA Advanced Light Materials and Processes for the Eco-Design of Electric Vehicles)

Alma
ADVANCED LIGHT MATERIALS

Proiektuaren xedea ibilgailu elektrikoen efizientzia eta autonomia hobetzea, haren pisu orokorra gutxituz. Helburu horrekin, ALMAk material anitzeko plataforma modular bat garatuko du, erresistentzia handiko altzairu aurreratuak, ijeztu metaliko hibridoak eta egiturazko konpositeak uztartuz, eta horiek modu esperimentalean eta birtualean ezaugarrituta, eskala anitzeko modelizazio-tresnekin. BATZ liderra izango da plastikozko osagai arin alternatiboen eta haien prozesuen proposamenean eta garapenean, Ford OEMarekin lankidetzan.

The ALMA Project has received funding from the European Union's Horizon 2020 Research and Innovation Programme under Grant Agreement No: 101006675

## *Mekatronika*

NG-PED

NG-PED proiektuak, CDTI diru-laguntza duenak, etorkizuneko ibilgailuen, elektriko eta autonomoen, pedaletarako aurreikus daitezkeen eskakizunak ikertzen ditu. Nagusiki, gainerako balaztatze-sistemarekin konexio mekanikorik gabeko balazta-pedalaren kontzeptuan oinarritzen da, hau da, konexio elektronikokoan. Horrek "feel simulator" (balazta-pedala zapaltzeko sentsazioaren emuladorea) delakoa duten sistemak behar izatera eramaten gaitu, bai eta pedal erretraktila dutenak eta abar ere. Horrez gain, plastikoan injektatutako balazta-pedalak ekoitziko dira, WIT teknologiarekin, zeinak berritasuna izango diren mundu-mailan. Proiektuaren barruan, BATZek balazta-pedalen sistema guztiz elektronikoa garatuko du, edozein arazoren aurreko segurtasun-estandar gorenekin, baita full-plastic pedal arinduak ere, metalezko pedal konbentzionaletan eskatzen denaren antzeko portaerarekin, ibilgailuaren erabiltzaileak atzematen duen sentsazioa elektronikoki doitzeko sistemak, eta, horri gehituta, pedalak ergonomikoki uzkurtzeko sistemak, gidatze autonomoko ibilgailuetarako beharrezkoak. Proiektu hau 2022ko lehen laurdenean amaitu da



iRel4.0

Programa honen azken helburua osagaien eta sistema elektronikoen fidagarritasuna hobetzea da, hutsegite-tasak gutxituta balio-kate osoan. Batzen kasuan, pedaletan erabiltzen diren sentsoreen garapenean aplikatzekoa izango da.

i2LGARBI

Soluzio adimentsu, konektatu eta jasangarriak garatzea ibilgailuetarako bidaiari-tokietarako, elektronika eta material aurreratuak gehituta. BATZen kasuan, hain zuzen, horiek pedaletan txertatzea da xedea.

Project co-financed by the EU through the European Regional Development Fund (ERDF), and funded by the Basque Goverment. 2021-2027.

## *Smartlab*

4.0 FORMULA

Material polimerikoen formulazioak garatzea, adimen artifizialeko tresnak erabiliz. Proiektuaren helburua adimen artifizialak ematen digun aukera optimizatzea da, datu-kantitate handiak analizatzeko eta aurreikuspenak sortzeko, formulazio berriak garatzeko orduan eraginkortasuna handitzen lagundu diezaguten.

Projects financed with FEDER funds, with the aim of promoting technological development, innovation and quality research.
http://ec.europa.eu/regional_policy/es/funding/erdf/

## *Konektatutako 4.0 industria*

IC4BATZ

BATZen ekoizpen-operazioen digitalizazioa: informazio fidagarri, arin eta seguruan oinarritutako kudeaketarantz.

Connected Industry.
http://www.mincotur.gob.es/portalayudas/rci/Paginas/Index.aspx

## *Zibersegurtasuna*

EDRACTIVA

EDR zerbitzariaren eta BATZ gailu mugikorren babes aktiboa.

Industrial Cybersecurity Programme 2021.

*Zein programatan parte hartzen ari garen gure webguneko (www.batz.com) Berrikuntza atalean ikus dezakezu; denak ageri dira bertan.*

# *2022ko lan-ildoak*

## *Erakunde osorako bikaintasun-eredurantz eboluzionatzen: BATZ Manufacturing Systemetik BATZ Management Systemera*

Erakunde osoaren jarduera globala etengabe hobetzea funtsezkoa da errendimenduari eusteko, kanpoan zein barnean gerta daitezkeen aldaketan aurrean erreakzionatzeko, eta aukerak sortzea ahalbidetzeko. Hau da, **lehiatzeko abantaila jasangarria eratu eta hazkunde errentagarriko helburuak lortu behar ditugu, bikaintasuna, pertsonak eta etengabeko hobekuntza oinarri dituen kudeaketa-sistema bat oinarri hartuta.**




- **BATZ Management System hobekuntza etengabean oinarritutako bikaintasun-eredua da, gure erakundearen jarduera guztiaren euskarri dena,** eta bertako prozesu guztiak aintzat hartzen dituena, haien eguneroko kudeaketarako metodo estandar bat ezarrita. Hau da, lan bat egiteko modurik sinple, seguru eta eraginkorrenean. **Prozesua 2020an hasi zen, eta 2022an erakundean zehaztutako mailetan sendotu da.**

Ildo horretatik, aurten prestakuntza-ekintzak zehaztutako hobekuntza-proiektuetako metodologiei begirakoak izan dira. Horren adibide dira, gure ERP kudeaketa-sistemako prestakuntza-saioak. Nabarmendu behar da, berripaperak urtean zehar BMSren inguruko komunikazio-planaren barneko gure instalazioetan sendotu egin dela, **Kaizen Euskarri**ko habearen barruan txertatuta. Ekintza horiei esker, horiek eta horien helburuak ulertzea eta onartzea errazten ari da, eta, beraz, lantaldeak gehiago inplikatzea.

Nabarmentzekoa da **denbora errealeko datu-analisiaren aplikazioko beste ezagutza-bloke bat**, injekzio-prozesuan efizientzia hobetzeko.

Nazioarteko eragiketen eremuan (Txina, Mexiko eta Txekia), 2022an estrategiaren zabalkundea eta jarraipena finkatu dira, **Kaizen liderren** estandarren arabera.

Halaber, urtean zehar urrats garrantzitsuak eman genituen **Eguneroko Kaizen** habearen estandarrak hobetze aldera Kunshaneko Instalazioan diziplina anitzeko bilkurak txertatzeari dagokionez edo Arteko Instalazioan proiektu berrien industrializaziorako bilkurari dagokionez.

**Laneko bikaintasunaren** alorrean, gure fluxuen kudeaketa hobetzen jarraitu dugu nazioarteko eragiketen eremuko instalazioen ildoa eta ildo-ertza birdiseinatuz eta Lay Out berrikuspenak eginez, adibidez, Mexikoko gure Instalazioan egindakoa. Nabarmentzekoa da kanpoko logistika-fluxuen kudeaketan egindako lana pull planning metodologiak erabiliz hornitzaileekin. Horren adibide dira Txekiako Instalazioan eskuratutako emaitzak. Azkenik, aipatzekoa da TPM metodologiaren ezarpenean aurrera egin dugula, Igorreko instalazioko soldadura-prozesuan efizientzia hobetzeko xedez.

BMS abantailak



## *Garapen digitala, gure enpresa-kudeaketarako giltzarria*

Iraunkortasuna eta Zibersegurtasuna. Gaur egun gakoak diren bi gai dira, eta elkarren arteko loturarik ez dutela badirudi ere, hertsiki lotuta daude. Iraunkortasuna epe luzera garapen ekonomiko, sozial eta ingurumenekoaren oreka mantentzeko gaitasunarekin lotzen da; zibersegurtasuna, aldiz, informatika-sistemak eta datuak kanpoko nahiz barneko mehatxuen aurrean babesteaz arduratzen da.

Gero eta konektatuago dagoen mundu batean, zibersegurtasuna funtsezko elementu bilakatu da iraunkortasuna bermatzeko. Mundu osoko enpresa eta erakundeak teknologiaren mende daude beren eguneroko eragiketak egiteko, komunikazioarekin hasi eta datuen kudeaketa edo prozesuen automatizaziora arte. Sistema horiek mehatxatzen badira, izan hackerren erasoengatik edo akats tekniko baten ondorioz, kalte adierazgarriak sor daitezke enpresaren ekoizpenean, segurtasunean eta erreputazioan.

Gainera, teknologian eta digitalizazioan emandako aurrerapausoek, era berean, energia eta baliabide gehiago kontsumitzea ekarri dute, eta horrek eragin negatiboa izan dezake ingurumenean. Hori dela eta, iraunkortasuna funtsezkoa da negozioen eta, oro har, gizartearen jarraikortasuna eta egonkortasuna bermatzeko. Batean eta bestean, BATZ-ek aktiboki jokatzen duen merkatuetan eta gizarte- eta enpresa-ingurunean izaniko aldaketaren funtsa jasotzen da. Eraldaketa-eragileak izanik, datorren hamarraldian modu erabakigarrian lagunduko digute gure Xedea betetzen.

## *Iraunkortasuna*

2022an zehar gauzatu diren ekimenak.

- Informatika-ekipoak erosteko Eskuliburua sortzea.
- Batz-en jarduerara begira zaharkituta egon arren, egunero erabiltzeko moduan dauden gailu mugikorren salmenta.
- Ikastetxeetan, Batz-en jarduera garatzeko zaharkituta geratu arren, hezkuntza-helburuetan erabiltzeko moduan dauden, informatika-materiala dohaintzan ematea.
- Batz taldearen instalazio ezberdinen artean gailuak partekatzeko jardun onak finkatzea.
- Gailu informatikoen balio-bizitza areagotzea, erabileraren ondorioz gailu horien errendimendua murriztea eragiten duten atalak ordeztuz (bateriak, etab.).
- “New life to avoid E.waste” proiektua aurkeztea, European Week for Waste Reduction (EWWR) astean.

Erabakiak hartzeko oinarria datu bakar, egiazko, azkar eta kudeaketaren maila guztietan integratua izatea ahalbidetzen diguten ekimenak.

- Big Data – IoT ustiatzea injekzio-teknologian. Beste teknologia/produktu batzuetara eraman daitekeen ekimena, ekoizpen-prozesua denbora errealean monitorizatu eta analizatzeko aukera ematen diguna. ***IC4BATZ*** *Proiektua ikusi*
- Kudeaketako KPIak erakundearen maila guztietan optimizatzea, datua zuzen kudeatzean eta lehen independenteak ziren jatorri desberdineko datuak ustiaketan integratzean oinarrituta.

## *Zibersegurtasuna*

Informazio-sistemak monitorizatzea, eta balizko mehatxuak atzeman eta haien aurrean ekitea.

- EDR (Endpoint Detection Response) teknologiaren ezarpena, enpresako ekipamendu eta azpiegiturak babesteko sistema, antibirus tradizionala eta monitorizazioko eta adimen artifizialeko tresnak uztartzen dituena, arrisku eta mehatxu konplexuagoen aurrean erantzun azkar eta eraginkorra eskaintzeko.
- SOC (Security Operations Center) zentro baten ezarpena, Batz sarearen jarduna 24x7 monitorizatzen duena, besteak beste, antibirus edo firewall bidez igorritako informazioa elkarlotuz.
- Barnean phishing kanpaina egitea erabiltzaileak kontzientziatzeko. Pasahitzen segurtasunari eta ransomware erasoei buruzko prestakuntza.
- IT/OT sareen segmentazio fisikoa.
- ISO27001 ziurtagiria berritzea.
- TISAX ziurtagiria berritzea Igorren, eta bere irismena Batz Czech eta Batz Zamudio instalazioetara zabaltzea.

***EDRACTIVA*** *Proiektua ikusi*

# II. POLITIKAK

***2.** - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

## *2.1 POLITIKEN DESKRIBAPENA*

BATZ Groupek hainbat politika korporatibo ditu. Horietan, gure jarduera arautzen duten printzipioak eta gidalerroak garatzen dira, eta gure kudeaketan eta gobernuan ESKren aintzatespena eta integrazioa adierazten dute; aldi berean, hainbat solaskiderekin dugun harremana taxutzen dute, eta eragin negatiboa duen edozein arrisku identifikatzen, prebenitzen eta saihesten laguntzen digute.




Teknologia berriak, lan egiteko era berriak eta elkarrekintza-molde berriak hain azkar aurreratzen ari diren honetan, enpresek aldaketa nabarmenei aurre egin behar izan diegu denbora laburrean. Era berean, aldaketa horiek eragina izan dute harremana dugun interes-taldeek gure taldearekiko duten aurreikuspenetan.

2022an sinadura aldatu da, izan ere, 2021. urtearen amaieran zuzendari berri bat sartu zen.

| Políticas | Descripción |
|---|---|
| | |
| Código de conducta | Documento que recoge diversas normas y procedimientos que regulan el comportamiento responsable de todas las personas que forman BATZ, extendiéndose, en la medida de lo posible, a Proveedores, Personas Asociadas y Clientes. |
| Política RSC | Marco base para la integración de la responsabilidad social en el modelo de negocio de BATZ Group |
| Memoria de sostenibilidad | Documento de divulgación frente a grupos de interés internos y externos en relación al desempeño de la organización con respecto al objetivo de desarrollo sostenible |
| Política medioambiental | Marco que establece objetivos ambientales alineada con la gestión ambiental estratégica. |
| Política SLL | Marco donde se establecen los principios generales de actuación en materia de Seguridad y Salud Laboral |
| Política de calidad | Política en la que se definen las directrices (visión, misión y valores) sobre las que desarrolla su actividad el negocio y en el que adquiere el compromiso de facilitar los medios necesarios para su cumplimiento y revisión periódica, así como de promover una compresión y difusión de la misma incluyendo a todas las partes pertinentes. |
| Política para la seguridad de la información | Política orientada a garantizar la protección eficaz de la Información, aportando valor añadido durante todos los procesos, garantizando la seguridad, confiabilidad y estabilidad de los sistemas. Todo ello, trabajando desde la mejora continua. |
| Política de proveedores | Política que define los requisitos que deben mantener nuestros proveedores en materia de ética empresarial, protección del medio ambiente, conservación de los recursos, derechos humanos y normas sociales. La política se basa en las normas legales e internacionales vigentes y en los principios fundamentales de gobernanza, responsabilidad social y medio ambiente |
| Protocolo contra el acoso sexual y por razón de sexo | Protocolo donde se recogen procedimientos y recursos para la prevención y atención, en su caso, de los posibles casos de acoso sexual o por razón de sexo que pudieran darse en BATZ. |
| Plan de igualdad | Documento que recoge un conjunto ordenado de medidas, adoptadas después de realizar un diagnóstico de situación, tendentes a garantizar la igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres y a eliminar la discriminación por razón de sexo |
| Política de selección y desarrollo | Política que tiene como objetivo concretar los puntos principales que, todas las empresas que conforman BATZ Group deberan aplicar en sus procesos de selcción y desarrollo de personas con la finalidad de contar con un equipo de profesionales alineados con la misión, visión y los valores de la empresa. |
| Política de movilidad internacional | Documento que recoge los puntos que afectan a las diferentes dimensiones que entran en juego en cualquier proceso de expatriación en BATZ Group, como son la dimensión económica, la profesional, la psicológica, la sociocultural y la familiar. |
| Política de comunicación | Documento que establece y define el marco de referencia para la gestión integral de la comunicación, incluyendo los diferentes públicos objetivo y los correspondientes canales de comunicación. |
| Manual de gestión de la seguridad de la información | Marco de referencia que establece las directrices para la implantación del Sistema de la Seguridad de la Información en la actividad de BATZ Group, así como las responsabilidades y autoridades del mismo. |
| Política de conciliación laboral y familiar | Documento que recoge mecanismos en materia de permisos, excedencias o reducciones de jornada permiten |
| Mapa de profesiones | Marco donde se integran las profesiones, su descripción y el rango retributivo. |

***3.** - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

## Gure kudeaketa sistema

Bikaintasun eta jasangarritasun terminoak bikote banaezina dira bere buruari eraginkorra izateko erronka ezarri dion edozein erakundetan. Jarduketa-eremu horren barruan dago industria- eta kalitate-estrategiaren giltzarri diren proiektuak modu eraginkorrean hedatzea Talde osoan, estandarrak, politikak eta ikasitakoak erakunde osoan beteko ditela bermatuko duen **Kudeaketa-sistema bakar eta globala** edukita. Integrazio hor 2021ean egin zen.

Prozesu horren emaitza izan da gure politiken eta gure kudeaketaren sendotasuna eta kalitatea neurtzen laguntzen diguten tresnak bateratzea, eta, aldi berean, egiaztatzea, sistema horiek zehatu eta mantentzeko pautak markatzen dituzten nazioarteko estandar nagusietan oinarrituta.

Gure kudeaketa-sistema antolaketa-egiturak, erantzukizunek, jarduketa-prozedurek eta beharrezko prozesu nahiz baliabideek osatzen dute, haren eraginkortasuna etengabe hobe dadin. Haren alorretako bakoitzak egitura komuna du, ISOk zehaztua bere nazioarteko arauak ildo berean jartzeko, goi-mailak egitura (HLS). Hala, eskakizunak erakundearen plangintzarekiko eta prozesuen kudeaketarekiko koherentziaz zehazten dira. Onetsitako arau bakoitzaren eskakizun guztiak: ISO 9001, IATF 16949, ISO 14001, ISO 45001, ISO 9100, ISO 27001; hala nola bezeroaren eskakizun espezifikoak edo lege-arauditik eratorriak ebaluatu eta gure kudeaketa-sistemak osatzen dituzten prozesuetan jasotzen dira.

Alde batetik, gure jarduna neurtzeko sistema bat dugu intranet korporatiboan; hilero eguneratzen du arloko, lantegiko edo helburuaren beraren arduradun bakoitzak. Adierazletan banakaturiko aginte-taula bat, adierazleon aldizkako jarraipena egitea eta ezarritako neurrietan antzemandako edozein desbideratze ia denbora errealean zuzentzea ahalbidetzen diguna.

Bestetik, kudeaketa-sistema bakoitzak bere eraginkortasunari eta efizientziari eustea ziurtatzen du, etengabeko hobekuntza inplementatuz eta prozesuetan oinarrituriko ikuspegia izanez. Ekintza horien jarraipen eta ebaluazioa prozesu bakoitzaren bilera operatiboetan egiten da, baita batzorde operatibo eta estrategikoetan ere, taldekoetan zein negozio eta lantegietakoetan, gutxienez hilero.




Hala lantegi bakoitzean aplikagarri diren kudeaketa-sistemak nola lantegiek eskuraturiko ziurtagiriak BATZen webgunean daude eskuragarri: https://www.batz.com/es.

## Gure bezeroen estrategiarekin bat egiten

Gure kudeaketa-sistemaren efikaziak, baita hura aplikatzen egindako aurrerapausoek ere, gure bezeroen bermea dute. 2022an, berriz ere, balorazio bikaina jaso genuen OEMen jasangarritasunari buruzko galdetegietan. Horietan, adierazle nagusiak ebaluatzen dira inguruen-gaiei, lan-arloko praktikei, kudeaketa etikoari, giza eskubideei eta abarri dagokienez. **% 88ko batezbestekoa NQC plataforman** (Volkswagen, BMW, Toyota, Volvo,…) gure instalazio guztiak kontuan izanda, eta **Silver recognition Ecovadisen** (Groupe PSA, Renault, GM) talde-mailan; hartara, **bigarren plataforma horrek ebaluatutako** sektoreko 25 enpresa onenen artean gaude. Biak ere nazioarteko erreferenteak dira hornidura-kate globaletan jasangarritasuna monitorizatzen, eta kate hori tamainaren, sektorearen eta herrialdearen arabera ebaluatzen dute.



Horrek erakusten du **BATZ Groupek aipatzeko moduko aurrerapena egin duela erantzukizun sozial eta korporatiboari dagokionez.** Hala, azken bost urteetan hobera egin dugu IGGko alderdietan, **gure erakundeko pertsona guztien lanari esker**, eta indargarritzat hartu behar dugu hori, etengabe hobetzeko ahaleginean jarraitzeko adorea emango diguna.

## *Gure politiken emaitzak*

**Medioambiente:** el 100% de nuestras plantas están certificadas según ISO 14001. Así mismo, destacar la nueva política ambiental que incluye la reducción de nuestra huella de carbono, y la preocupación por implementar acciones que mejoren la sostenibilidad energética, como las auditorías energéticas en plantas productivas. Además de verificar la optimización de los procesos productivos, resultando en una reducción de los residuos.

**Ética:** señalar nuestro trabajo en cuanto a la garantía de la seguridad y confidencialidad de la información, así como la observación de las diferentes políticas de ética empresarial y puesta en marcha de mecanismos estructurales para hacer frente a las violaciones de las mismas.

**Prácticas laborales y derechos humanos:** somos reconocidos como empresa con un sistema de gestión avanzado en relaciones laborales y derecho humanos, destacando nuestras políticas y acciones en estas materias así como la gestión de temas de salud y seguridad laboral.

**Compras sostenibles:** acciones realizadas por BATZ para facilitar el desarrollo de nuestros proveedores así como la integración de cláusulas sociales y ambientales en contratos con los mismos, y el análisis de riesgos en estos proveedores.

# III. ARRISKUAK EPE LABUR, ERTAIN ETA LUZERA

***4. - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula***

BATZ Groupen, aurre egin behar diegun arrisku nagusiak eta arrisku horiei epe luzean ekiteko era ez dira nabarmen aldatu aurreko ekitaldiekin alderatuta, eta gure sektoreko joerekin zuzenean lotuta daude (txosten honen 3. eta 4. ataletan daude deskribatuta). Gure merkatuko bilakaerari "talentuaren aldeko gerra" gehitu behar zaio, zeinaren kudeaketa-ikuspegia 6. atalean (gai sozialak eta langileei buruzkoak) eta 9. atalean (Gizartea) deskribatu dugun.

Erakundearen kanpoan zein barruan bai arriskuak bai hobetzeko aukerak identifikatzeko tresnak eta metodologiak ditugu, hala nola aurreko atalean aipatutako SMMS, epe labur, ertain eta luzeko estrategiei zehaztasuna, ordena eta argitasuna ematea ahalbidetzen diguna.

| ESCENARIO ACTUAL | |
|---|---|
| MOVILIDAD | Pasar del sector de automoción al de movilidad, siguiendo las tendencias EASCY (Eléctrico, Autónomo, Compartido, Conectado, Actualizado anualmente) |
| SOSTENIBILIDAD | En su triple dimendión (medioambiental, sociedad, gobernanza) |
| EFICIENCIA | Excelencia operacional para cumplir con los requisitos de los clientes |
| TALENTO | Desarrollo de personas para adaptación a un nuevo entorno |
| CONCENTRACIÓN DE CLIENTES | Menos players, operaciones societarias en OEMs |
| GEOPOLÍTICA | Guerras comerciales, tensión arancelaria,... |
| CADENA DE SUMINISTRO | De la "Globalización" a la "Glocalización", crisis de los semiconductores, incremento precio materias primas,... |

Gaur egun, VUCA mundu bat dugu aurrez aurre, non malgutasunak, dimentsionamenduak eta trebakuntza teknologikoak paper garrantzitsua baitute. Urte hauetan, gainera, ibilgailu-fabrikatzaileekiko harreman-ereduak aldaketa handiak izan ditu, eta horietara egokitu behar izan dugu, kudeaketa-eredu aurreratuak harturik. Ildo horretan, eta gure kasua denez, erakundearen esparru guztietara hedatutako berrikuntzak sortzen zaizkigun agertoki berrietara egokitzeko aukera ematen digu. Gaur inoiz baino beharrezkoagoa da estrategia eta posizionamendu definitua eta partekatua izatea, ingurune horretara egokitzeko eta, horrela, gure iraunkortasuna ziurtatzeko. Eta horrek digitalizazioa, efizientzia eta lehiakortasuna dakartza berarekin, zalantzarik gabe.

Ingurune aldakor horrek behartu egiten gaitu hurrengo urteetan merkatuaren, haren parte diren enpresen, eta, azken batean, BATZ Groupen bilakabiderako erabakigarriak izango diren faktoreak identifikatzera, eta gure kudeaketan eta estrategian integratzera. Makrojoera horiek gure negozioen garapenean duten inpaktuak ondorioak dakarzkio, era berean, BATZ Groupek bere ekosistema osoan duen eraginari.

Ondorengo irudian, gure sektoreko arriskuen mapa ikus daiteke, arlo sozialari eta etikoari eta ingurumenari dagokienez, herrialde herrialde.




*Mapa de riesgo social, medioambiental y ético por país (EcoVadis, 2019)*

Ildo horretan, kontuan izanda gure jarduera zer eskualdetan garatzen dugun, eta gai horiek gure enpresarentzat dute garrantzia, hurrengo eskeman BATZentzako lehentasunezko gaiak jorratu ditugu, eta epe labur-ertainean nola erantzuten ari gatzaizkien azaldu dugu.

| LEHENTASUNA | EKIMENAK |
|---|---|
| **ETIKA ETA GOBERNANTZA**<br>» Erabaki eta ekintza zehatzak, balio sozialek eta banakakoek eta araudia betetzeak eskatzen dutenari dagokionez. | » IGG Politiken egokitzapena eta Jokabide-kodea; horietan jasotako arau eta prozedura eguneratuek BATZ osatzen duten pertsona guztien jokabide arduratsua erregulatzen dute, eta Hornitzaile, Elkartutako Pertsona eta Bezeroengana zabaltzen dira. Era berean, informazioaren babes eraginkorra bermatzen duen jarduera-esparrua gehitu da, prozesu guztietan balio erantsia dakarrena eta sistemen segurtasuna, fidagarritasuna eta egonkortasuna bermatzen dituena<br>Ikusi txostenaren II., VII. eta VIII. atalak. |
| **PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK**<br>» Balio-proposamen bat eraikitzea, lehiakorra, malgua, moldakorra eta berritzailea izateagatik nabarnenduko dena. | » Produktu anitzeko, teknologia anitzeko eta bezero anitzeko orientazio argia duen kudeaketa, produktuak eta prozesuak modu eraginkorrean eta bezeroei begira diseinatuz eta garatuz Hori guztia, berrikuntzaren aldeko apustu garbia eginez, baita eragiketa-efizientziaren eta datuaren gobernantzaren aldekoa ere, geure soluzioak sektorearen gaur egungo joerekin bateratu ahal izateko<br>Ikusi ekimenak txostenaren I. atalean. |
| **PERTSONAK ETA GIZARTEA**<br>» Bat egin duen talentua, proiektu komunak motibatua.<br>Balio-katea modu iraunkorrean sendotzea, efizientzia eta fidagarritasuna uztartuz | » Kultur eraldaketa antolakuntza-egitura arin, eraginkor eta lankidetzazko baterantz bultzatu.<br>Ikusi ekimenak txostenaren VI. atalean.<br>Hurbileko hornitzaile estrategikoen kate bat garatu, COVID-19aren krisiaren ondoren bizkortu egin den paradigma-aldaketari erantzuna ematearren, balio-katearen desglobalizaziorantz egiteko, non alderdi geopolitiko eta ekonomikoek eragin txikiagoa duten.<br>Ikusi ekimenak txostenaren IX. atalean. |
| **INGURUMENA**<br>» Bikaintasuna eta jasangarritasuna prozesuetan eta produktuetan, haien ingurumen-inpaktua gutxituta. | » Baliabideen erabilera arrazional eta jasangarria sustatzea, efizientzia energetikoa hobetzea eta gure Karbono Aztarna murriztea barne.<br>Planak egitea berotegi-efektuko gasen igorpena murrizteko, baita geure hondakinak ahal beste gutxitzeko ere, zabortegiak erabili beharrean berrerabilpena eta ekonomia zirkularra lehenetsita.<br>Ikusi ekimenak txostenaren V. atalean, eta berritzearen aldeko gure apustuaren deskribapena I. atalean. |
| **GAI EKONOMIKOAK**<br>» Hazkunde adimentsua, gure merkatuaren neurriari behar bezala egokitzeko. | » Finantza-profilaren ratio garrantzitsuenak hobetzea. |

## 4.1 KPI´ak

Txosten hau GRI estandarren arabera egin da, eta gure erakundeko gai materialen eta horiekin lotutako eraginen irudi osoa eta orekatua ematen du, baita horien kudeaketarena ere.

## 4.2 MATERIALTASUNAREN ANALISIA

BATZ Groupek jasangarritasun eta kudeaketa gardenaren printzipioen arabera jarduten du, epe luzerako antolaketa iraunkorra lortzeko faktore garrantzitsuak kontuan hartuta. Modu horretan, interes-talde nagusien interesak aintzat hartu eta ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-inpaktu nagusiak zehazten ditu.

BATZ Groupek jasangarritasuna bermatzeko, ezinbestekoa du interes-taldeen beharrak asetzea eta, aldi berean, negozioa garatzea eta balioa sortzea.




El Marco de actuación de la sostenibilidad de BATZ Group se fundamenta en los siguientes pilares internos y externos:




BATZ Groupen, alderdi material garrantzitsuenak identifikatu ditugu. Horretarako, interes-taldeen kezka kontuan hartzen duten inpaktu-irizpideak eta kudeaketa aktibo bati lotutako alderdiak aintzat hartu ditugu, antolakundearentzat oso garrantzitsuak direlako.

Irizpide horien arabera, hainbat inpaktu material identifikatu ditugu, interes-taldeentzat eta negozioarentzat duten garrantziaren arabera ebaluatu eta lehenetsi direnak, jarraian azaltzen den moduan.




**ASUNTOS ECONÓMICOS**
- Solidez financiera
- Colaboraciones estratégicas / Alianzas

**ÉTICA Y GOBERNANZA**
- Fomento de la imagen y reputación
- Políticas y gestión de riesgos (personas, compromiso con el entorno, administraciones públicas y políticas anticorrupción, clientes y proveedores, gestión de la información
- Ética en los negocios (valores y principios que rigen la toma de decisiones)
- Cumplimiento normativo
- Protección de la propiedad industrial
- Ciberseguridad (aseguramiento, confidencialidad e integridad de los datos, la información y sus sistemas)

**PRODUCTOS Y SERVICIOS**
- Calidad y seguridad de los productos
- Satisfacción del cliente
- Innovación en productos y procesos
- Desarrollo de proveedores (relación a largo plazo, impulso de prácticas responsables,...)
- Excelencia operacional

**PERSONAS Y SOCIEDAD**
- Atracción y retención del talento
- Prevención de riesgos laborales y promoción de la salud y seguridad de los empleados y resto de grupos de interés.
- Usar criterios relativos a los derechos humanos en las operaciones y en los acuerdos y contratos, y formar a la plantilla en políticas o procedimientos sobre derechos humanos
- Formación y desarrollo
- Implicación en comunidades locales

**MEDIOAMBIENTE**
- Gestión eficiente de los recursos
- Compromiso con el entorno (minimización del impacto ambiental de nuestra actividad)

## 4.3 GURE INTERES-TALDEAK

Gure misioa argia da: gure bezeroen arrakastan laguntzeko gaude hemen, gure inguruneko garapen sozioekonomikoan parte hartzen dugun bitartean. Eta hori guztia bakarrik gauza daiteke konfiantzaren, osotasunaren, lankidetzaren eta gardentasunaren bidez. Horrexegatik, guretzat funtsezkoa da gure interes-taldeekin ditugun harremanak zaintzea eta indartzea.

Horretarako, hainbat komunikazio-kanal ofizial ditugu, haien bitartez elkarrizketak ezartzeko eta horrela gure taldeen itxaropenak bete ahal izateko.

## GRUPOS DE INTERÉS

| INTERNA | | EXTERNA | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| NUESTRAS PERSONAS | ÓRGANOS SOCIALES | CLIENTES | PROVEEDORES | SOCIEDAD[1] | ADMINISTRACIONES E INSTITUCIONES[2] |
| Cánales de comunicación propios de la Cooperativa | Cánales de comunicación propios de la Cooperativa | Web | Web | Web | Web |
| Intranet | Intranet | Contacto directo | Extranet | Redes sociales | Redes sociales |
| Newsletter | Newsletter | Tech days | Reuniones | Entrevistas y artículos en prensa | Entrevistas y artículos en prensa |
| Reuniones | Reuniones | Ferias y eventos | Redes sociales | Reuniones | Reuniones |
| Tablones | Tablones | Redes sociales | Visitas a nuestras instalaciones | Jornadas, ferias y eventos | Jornadas, ferias y eventos |
| Pantallas | Pantallas | Visitas a nuestras instalaciones | | Visitas a nuestras instalaciones | Visitas a nuestras instalaciones |
| Canal ético | Canal ético | Informes | | Informes | Informes |
| Encuestas de satisfacción | Encuestas de satisfacción | Catálogos | | | |
| Plan de acogida | Plan de acogida | | | | |

*1 Engloba sociedad civil, Mondragon, asociaciones, entidades locales, ONGs, universidades, centros de formación, centros tecnológicos,…*
*2 Engloba Mondragon, administraciones públicas, entidades financieras, organismos reguladores, organismos públicos de financiación…*

# V. INGURUMEN ALDERDIAK

***6.** - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

*BATZ Groupek* aldarrikatzen du **mundu hobea lortzeko xedea duela, talde-lanaren bitartez, eta mugikortasun-soluzio global, berritzaile eta jasangarriak emanez**. Hartara, Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du xede hori betetzeko behar diren baliabideak emateko, eta interesa duten alde guztiak motibatu eta hori lortzeko abiarazitako ekimen guztietara erakartzeko.

Prozesuen bikaintasunaren eta jasangarritasunaren alde egiten dugu, **haien ingurumen-inpaktua gutxitzeko**, instalazio bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanda. Aipatu behar da BATZ Taldearen instalazio ezberdinetan **ISO-14001 arauan** oinarritutako ingurumeneko kudeaketa-sistema bat dugula ezarrita eta ziurtatua. Horretara, beharrezkoak diren giza baliabide zein baliabide material guztiak bideratuko dira, ingurumen arloko arrisku ezberdinak prebenitu eta minimizatze aldera.

Etengabeko hobekuntza dugu berme, hori baita erreferentzia-markoa kutsadura prebenitu eta ingurumen-arloan gure jarduera hobetuko duten helburuak ezartzeko.

Gure **konpromisoak**

- **Legeak ezarritako baldintzak** beteko ditugu, baita geuk sinatutako beste batzuk ere, eta sor litezkeen desbideratzeak zuzenduko ditugu.
- **Baliabideen erabilera arrazional eta jasangarria** sustatzen dugu,**efizientzia energetiko hobetzea eta gure Karbono Aztarna murriztea barne.**
- Erabiliko ditugun **substantzia kimikoak ebaluatzen ditugu, arduraz erabiltzeko eta berotegi-efektuko gasen igorpena gutxitzeko irizpideak ezarrita.**
- **Ahalik eta hondakin gutxiago sortzeko** planak ezartzen ditugu, **berrerabilpena** eta **ekonomia zirkularra** lehenetsiz, zabortegien erabileraren aurrean.
- Gure **hornidura-katea** gidatuko dugu, sortzen duten ingurumen-inpaktua gutxitzearen garrantzia erakutsiz.

Politika hori barne-mailan komunikatzen da, eta erakundean interesa duten alde guztiek eskuratu dezakete, barne-mailako (intraneta eta estraneta) eta kanpo-mailako (BATZ Groupen webgunea) kanal korporatiboen bitartez.

Gure pertsonak, ingurumen-gaietako eragile nagusiak

Funtsezkoa da gure langileei ingurumen-hezkuntza ematea, arlo horretan treba eta sentsibiliza daitezen, pertsona bakoitzak bere ingurunean betetzen duen eginkizun "anplifikatzailea" inola ere ahaztu gabe. BATZ Groupen eragin-eremua gure ekoizpen-zentroetatik askoz harago hedatzen da. Horren guztiaren inguruan, aldizkako prestakuntza-saioak egiten dira, gure langileen profilari egokituak, ingurumen-gaitasuna hautemandako beharretara egokitzearren. Errealitate teknologiko berrietara egokitutako baliabideak ditugu, gure ingurumen-kanpainak hobeto zabaltzeko, informazio-pilulen moduan, Intraneten, webgune korporatiboaren, RSSren eta abarren bidez.

Era berean, arreta berezia jartzen dugu larrialdiak kudeatzeko moduan. Gertakari horiek, unean unekoak eta probabilitate txikikoak izan arren, jarduketa espezifikoak behar dituzte, eta guk simulazioak planteatzen ditugu gure erantzuteko gaitasuna ebaluatzeko. Horregatik, ingurumen-alderdien ebaluazio jarraitua egiten dugu, eragin negatiboak saihesteko asmoz, horrelakorik gertatu aurretik. Guk proportzionaltasunez jokatzen dugu, prebentzio-printzipioaren arabera. BATZen ingurumen-helburuak bi jarraipen-mailatan ezartzen dira: Taldearen helburuak, batetik, eta instalazio bakoitzaren berezko helburuak, bestetik. Lehenengoak GRI estandarren arabera zehaztu dira, eta hilero jakinarazi behar dira; horrek aukera ematen digu desbideratze esanguratsuak gertatu aurretik jarduteko.

Ingurumeneko finantza-bermeei eusten diegu gure aseguruek estaltzen dituzten polizen barruan, eta horrek baliabide ekonomiko nahikoak ziurtatzen dizkigu geure jardueraren ondoriozko balizko ingurumen-erantzukizunei aurre egiteko.

Gure ingurunearekiko konpromisoa, dena den, urrunetik dator. BATZen lehen ingurumen-politika 2001ean ezarri zen, eta ISO 14001 nazioarteko arauan oinarritutako kudeaketa-sistema bat abiarazteko esparru gisa balio izan zuen. Bi urte geroago, ziurtagiria eskuratu genuen Igorreko lantegirako, non taldearen egoitza dagoen. Gerora, araua berritu ahala sistema egokituz joan gara, eta goi-mailako egitura hartu dugu, bai eta arriskuan oinarritutako ikuspegi berria ere, bizi-zikloaren ikuspegia barne.

Zuzendaritzak eskakizun gisa ezartzen dio instalazio bakoitzari Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS) mantentzea, hirugarren aldetik ziurtatua. IKSan prozesu eta produktu berriak eta eta instalazioen handitzeak sartzen dira. Harro diogu zentro batek ere ez duela galdu bere ziurtagiria lortu zuenetik.

Arlo horretan egiten ditugun jarduerak bat datoz Agenda 2030eko Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH); horiek ditugu abiapuntu ingurunean eta gizartean nola eragiten ari garen jakiteko eta Erakunde gisa ditugun erronkak finkatzeko. Gure betebeharra da jasangarritasuna, enpresa-talde gisa, ekonomia zirkularraren sustapenarekin eta klima-aldaketaren ondorioak murriztuko dituen energia-eredu baterako trantsizioarekin uztartzen jakitea.

## 5.1 JARRAIPENA, GURE INGURUMEN-INPAKTUA

***7.** - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

Erakunde orok sortzen ditu ingurumen-inpaktuak, eta, gure kasuan, kuantifikatu eta, aldi berean, estrategiak garatzen ditugu horrelakoak saihesteko edo minimizatzeko. BATZek giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta materialak ematen dizkio bere instalazio bakoitzari, ingurumen-legeria zein gure alderdi interesdunek hala eskatuta aplikagarri zaigun esparru horretako edozein araudi erabat betetzeko. Filosofia horrek ekintza-planak ezartzera garamatza, non hondakinen eta isurien minimizazioa lehenetsi edo gure jasangarritasun energetikoa hobetzen diren.

### *ENERGIA-JARDUNA*

Industria-erakundeetan eraginik handiena izan dezaketen alderdietako bat ekoizpen-jarduerak garatzeko beharrezko energia-eskaera handia da. BATZ Groupen, gure energia-iturri guztiak identifikatu eta haien kontsumoak hilero ematen ditugu.

**Energiaren kudeaketa** lehentasun modura finkatu dugu. Gure instalazioetako batzuetan sistemak daude kontsumoa denbora errealean monitorizatzeko, eta horrek aukera ematen du energia-eskari handiko guneetan arreta jarri eta eratorritako ingurumen-inpaktua eta ondorio ekonomikoak arintzeko jarduketak egiteko. Datu guzti horiek balio erantsi handikoak dira.

Bi energia-iturri ditugu: argindarra eta erregai fosilak, gas naturala eta diesela batez ere. Instalazio bakoitzarekin batera energia-estrategia zehazten hasi gara, bi premisatan oinarrituta:

1. Bidea egitea, jatorri % 100 berriztagarriko argindarra kontsumitzeko helbururantz.
2. Erregai fosilak ordezkatzea, horretarako aukera dagoenean, eta murriztea, alde teknikotik zein ekonomikotik teknologia bideragarririk ez dagoen kasuetan.

Honako grafiko honetan, kontsumitutako energiaren banaketa ageri da:




**Gas naturala** gure langileen konfort termikoa mantentzera bideratzen da, berokuntzarako soilik, eta gure hiru instalaziotan energia-iturri aukeratu dugu. Kontsumoan beherakada ikusten dugu aurreko urteekin alderatuz. Hala ere, ekintzak gauzatu dira kontsumoa murrizteko, hala nola salgaien zama-lanen eremuaren eta ekoizpen-eremuaren arteko itxiturak. 2.139 MWh kontsumitu dira, hau da, aurreko urtean baino % 9,97 gutxiago.

**Gainerako erregai** fosilak gehienbat ibilgailuen flotarako erabiltzen dira, bai gure instalazioetan zamak mugitzeko (orga jasotzaileak) bai enpresak norberaren erabilerarako emandakoak. Larrialdi-egoeretarako sorgailu elektrikoak, suteetatik babesteko instalazioetan

erregaia behar duten punpatze-sistemak eta halako zenbait instalazio mantentzen baditugu ere, horiek ez dute kontsumitu mantenurako behar duten gutxienekoa baino. Diesel-kontsumoa, guztira, 25.762 litrokoa izan da.




Energia-iturri nagusia **argindarra** da: 27.374 MWh kontsumitu dira. Kontsumitutako energia elektrikoaren eta zuzeneko eskulan-orduen arteko ratioa aztertuz gero, ikusten da % 10 igo dela, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Gure instalazioetan kontsumitutako argindarraren jatorriari begira, esan dezakegu gutxienez 9.087 MWh energia berriztagarriak erabiliz ekoitzi direla. Jakinik benetako kopurua handiagoa dela, baina ez dagoela jasota, ezin baita datua egiaztatu, azpimarratu behar dugu joera positiboa dela, eta bat datorrela bai bezeroek bai gizarteak nahi dutenarekin.

2020an, **energia-intentsitatea** kontzeptua sartu zen instalazio bakoitzaren hileko txostenean. Adierazle horrek energia-eraginkortasunari buruzko informazioa ematen digu, ekoizpen-zentro bakoitzaren ekonomian oinarrituta. Adierazle horren hobekuntza Eraginkortasun Energetikoaren Hobekuntza Planen bidez artikulatzen da, jada ondo probatuta dauden lan-ildoei eutsita (hala nola, ohiko argiztapen-teknologiaren ordez Led erabiltzea, aire konprimatuko zirkuituetako auditoretzak ezartzea ihesak ekiditeko, instalazioak programatzea beharrezkoak ez direnean itzalita egon daitezen, etab.).




| | |
|---|---|
| 2.018 | 144,89 |
| 2.019 | 144,01 |
| 2.020 | 159,68 |
| 2.021 | 192,22 |
| 2.022 | 154,83 |

## EMISIO ATMOSFERIKOAK

Gure **kutsatzaile atmosferiko** nagusiak bi bloke nagusitan multzokatzen dira: besteak beste, soldadura- eta mekanizazio-prozesuei dagozkienak, Co, NOx eta partikulekin lotuta daudenak; eta konposatu organiko lurrunkorrak (KOL) dituzten substantzia kimikoak erabiltzearen ondoriozkoak. Gure prozesuen ezaugarriak direla eta, emisio kutsatzailerik esanguratsuenak KOLak dira, eta, horregatik, zenbait instalazio beren erosketetarko irizpideetan gehitzen hasita daude KOLik igortzen ez duten edo oso gutxi igortzen duten produktu kimikoei lehentasuna ematea. Substantzia horiek, giza osasunerako kaltegarriak izateaz gain, ekosistema naturaletan eragin kaltegarriak dituzte, organismoen jarduera fotosintetikoan eta metabolismoan eragina dute, eta smog fotokimikoa eragiten dute.

Azken urteetan ikusitako joeraren arabera, murrizketa nabarmena da, nahiz eta aurten igoera erregistratu:




Instalazio bakoitzak bere isuri atmosferikoak kontrolatu eta herrialde bakoitzean aplikatzekoa den indarreko legeriak ezarritako emisio-mugak betetzen ditu. Gure instalazio guztiek % 100ean betetzen dute alderdi hori.

Gainera, **ingurumeneko soinu-presio** mailak aldizka kontrolatzen dira, onetsitako erakundeekin egiten diren neurketa eta txosten independenteen bidez. Esan dezakegu 2022an instalazioek aurkezturiko txostenak egokitzat jo direla.

## KARBONO-AZTARNA

BATZ Groupek jasangarritasuna bere estrategian txertatuta du, eta GIHekin bat eginda dago. Hori dela eta, erakundearen karbono-aztarna ezagutzeko bideari ekin diogu, gure energia-kontsumoak eragiten duen inpaktua islatzeaz gain. Horixe da lehen urratsa etorkizunean erakundearen deskarbonizazioa lortzeko eta gure inpaktua behar bezala kudeatzeko.

Berotegi-efektuko zenbat gas igortzen dugun kalkulatzeko, GHG Protocolek deskribatutako metodologia erabiltzen dugu. 2021. urtean geure aztarna korporatiboaren kalkulua inplementatu genuen, ad hoc tresna bat erabiliz. Horrek aukera emango zuen aztarna hori hirugarrenek egiaztatzeko. Kontsumo elektrikoak eragindakoez bestelako igorpen ez-zuzen batzuk kalkulatu beharrak dakar jauzi kualitatiboa.

Txosten honetan, 1 eta 2 irismenetatik eratorritako datua aurkezten da. Bat zenbakiko irismena erregaien erabilerari eta prozesuko igorpenei edo igorpen iheskorrei (su-itzalgailuen erabilera eta gas hoztaileak) dagokie; eta bi zenbakikoa, berriz, argindarrari.

| GHG kategoria | | CO2 tona baliokidea |
|---|---|---|
| 1.1 | errekuntza geldikorra | 396,17 |
| 1.2 | errekuntza mugikorra | 14,56 |
| 1.3 | Industria-prozesuen igorpen zuzenak | 115,32 |
| 1.4 | Igorpen iheskorrak, BEGak askatzea dela eta | 1.046,02 |
| 2.1 | Argindarrak eragindako igorpen ez-zuzenak | 9.350,59 |




Kalkulu-tresna hobetzearen ondorioz, aurreko urteetan aurkeztu diren balioak txikiegitzat jotzen dira, eta, horrenbestez, berriz kalkulatuko dira. BATZen etorkizuneko klima-estrategiarako abiapuntuko urtea 2021 izango dela ezarri da.

Karbono-aztarnaren ondoriozko gure inpaktuaren analisia gure ingurumen-aztarnaren analisiarekin batera egin da (ikusi 5.2 kapitulua, ekonomia zirkularra)

## *5.2 EKONOMIA ZIRKULARRA ETA HONDAKINEN PREBENTZIO ETA KUDEAKETA*

*8. - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

Jasangarritasunak, estrategia gisa, BATZ Groupeko ekonomia zirkularra bultzatzea dakar. Ekoizpen-eredu horren arabera, material birjinen sarrera murriztu behar dugu, hondakinen ekoizpena minimizatu eta produktuen bizi-zikloa hedatu.

Urteak dira lehengaien aurreztea bultzatzen dela, gure produktuen diseinu-fasetik bertatik. Baliabideen erabilera murrizten duten teknologiak inplementatzen ditugu, hala nola WIT injekzioa edo MuCell ®, eta birziklatutako material plastikoak txertatzen ditugu gure prozesuetan, gure plastikoa berrerabiltzeko gai izanik.

Lehenengo aldiz, **ekonomia zirkularreko diagnostikoa** egin dugu gure serie-ekoizpeneko negoziorako. Partaidetza-prozesu baten bidez egin zen, eragindako sail guztietako ordezkariekin: ingeniaritza, logistika, erosketak, ingurumena, berrikuntza, marketina eta komunikazioa, besteak beste.




CircularTRANS diagnostiko-eredua, iturria: Mondragon Unibertsitatea

Gure testuinguruaren balorazioak emaitza hau izan zuen:




Analisiaren ondorioz, hobetzeko honako aukera hauek ezarri genituen:

- **Sarrera zirkularren kopurua handitu** eta **materialen inpaktua gutxitzeko**
    - Birziklatutako altzairuaren portzentajea handitzea
    - Plastiko birziklatua erabiltzea
    - Biopolimeroak erabiltzeko aukera ezartzea
- **Energiaren inpaktua gutxitzeko**
    - Gaur egungo argindarraren ordez iturri berriztagarrietakoa erabiltzea
- **Garraioaren inpaktua gutxitzeko**
    - Propultsio-sistema alternatiboak

## HONDAKINEN KUDEAKETA

Erabiltzen ditugun material metalikoak berez % 100 birziklagarriak dira; behin gure instalazioetan hondakin gisa hartzen direnean, kudeatzaileengana bideratzen dira, eta haiek berriz urtzen eta merkaturatzen dituzte.

Konpostaje-programarekin jarraitu genuen Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, eta, beraz, vending zerbitzuaren janari-hondarren, edalontzien eta paletinen ondoriozko frakzio organikoa konposta fabrikatzera bideratzen da.

Azken aukera zabortegiko hondakina izatea izango da, eta berrerabiltzeko edo birziklatzeko edozein bide lehenetsiko da.

Hainbat urtez hondakinen sorrera minimizatzeko politikak ezarri ondoren, kudeatutako bolumen osoa aurreko ekitaldikoaren antzekoa dela ikus daiteke, nahiz eta ekoizpena handitu. Honela banatuta dago:




| Groupen hondakinak (tonak) | 2.017 | 2.018 | 2.019 | 2.020 | 2.021 | 2.022 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ez-arriskutsuak | 5.183 | 6.916 | 5.811 | 3.630 | 3.687 | 3.890 |
| Arriskutsuak | 403 | 408 | 311 | 207 | 150 | 128 |
| GUZTIRA | 5.586 | 7.324 | 6.122 | 3.838 | 3.837 | 4.018 |

Datuek erakusten dute kudeatutako pisuak etengabe behera egin duela, 2018. urtetik. Azpimarratzekoak dira, beren ezaugarriengatik, hondakin arriskutsuak: orain, 2018an baino % 68,63 gutxiago. Hondakin ez-arriskutsuei dagozkien kopuruak aurreko urtekoen antzekoak dira, nahiz eta portzentaje handiagoak izan.

Hileroko txostena egin beharra dakarren adierazle bat ezarri da instalazio bakoitzerako, zuzeneko eskulaneko langileek egindako lanorduek sortutako hondakin arriskutsuaren kopuruan oinarriturik. Datu hori baliotsua da hondakin-tipologia hori modu fidagarriagoan kuantifikatzeko; izan ere, hondakinok lantegietan sortzen dira nagusiki.

$$RP = \frac{\Sigma residuo\ peligroso\ gestionado\ (kg)}{\Sigma\ horas\ trabajadas\ MOD\ (h)}$$

| 2.018 | 2.019 | 2.020 | 2.021 | 2.022 |
|---|---|---|---|---|
| 0,11 | 0,10 | 0,26 | 0,06 | 0,04 |

Aurreko urteotan bezala, bolumen handieneko hondakin arriskutsuak ezaugarri oliotsuak dituztenak dira; ondoren, inpregnatutako solidoak, lantegiko garbiketaren ondoriozko garbiketa-ur zikinak; eta, azkenik, produktu kimikoak eduki dituzten ontziak. Hondakin ez-arriskutsu gehienak metalikoak dira, kudeatutako pisuaren arabera egozten baitira.

## 5.3 BALIABIDEEN ERABILERA JASANGARRIA

*9. - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

### UR-KONTSUMOAK

BATZen, hiru prozesu arduratzen dira uraren kontsumoaz: ekoizpen-eremuetako hozte-zirkuituetatik eratorria, norberaren garbiketarako eta iturrietako kontsumoa, eta garbiketara bideratua.

Egun, instalazio bakoitzerako hozte-sistemarik eraginkorrenak dauzkagu ezarrita, hozkailu adiabatikoen esperientzia batetik bestera eramanda. Gainera, garbiketarako erabiltzen den uraren kontsumoa murrizteko ekintzak txertatu ziren, besteak beste: sakagailuak eta itxiera automatikoa dituzten txorrotak; emaria murrizteko aireztagailuak, presio-sentsazioari eutsita; komunetako tangak deskarga bikoitzarekin; zirkuituen berrikuspena, ihesak bilatzeko; etab.




Ur-kontsumoa, guztira, 21.533 m3-koa izan zen 2022an, hau da, iaz baino % 7,7 txikiagoa. Ur-hornidura osoa sare ez-propioetatik dator. BATZen instalazio ezberdinetan uraren kudeaketa arduratsuaren alde egiten jarraitzen dugu, kasuren batean berrerabilpenerako prozesuak txertatuz.

Jakin badakigu uraren proportzio handi bat gure kolektiboak kontsumitzen duela, eta, horregatik, hilero igortzen dugu kontsumoaren adierazle bat, langile kopuruarekin erkatuta. Emaitzek adierazten dute, horren berri ematen hasi ginenetik lehen aldiz, ur-kontsumoa alderdi esanguratsua dela, 2,56raino hazi baita (2018ko balioa 1,77koa izan zen).

## LEHENGAIEN KONTSUMOA

*10. - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

BATZen, urteak daramatzagu jasangarritasuna gure produktuen portfolioan txertatzen. Horiei balio erantsia ematen diegu, ingurumen-inpaktu hobea duten fabrikatutzat jotzen baititugu, eta beren bizi-zikloan ingurunerako hain kaltegarriak ez direla bermatzen du. Lehengaien horniduratik hasi, ekoizpen, merkaturatze eta garraiotik igaro, eta hondakinen azken kudeaketaraino.

Ildo horretatatik, BATZen, lehengaien kontsumoen murrizketa aurrerago fabrikatuko diren produktuen kontzeptualizazio- eta diseinu-fasetik bertatik hasten da. Horrela, hainbat diseinu-kontzeptu aplikatzen ditugu, osagaiak arintzea lortzeko, eta gure prozesuak hobetzen jarraitzeko aukerak aztertzen eta ezartzen jarraitzen dugu. Hala, eta txosten honetan aurreko atal batean azaldu bezala, eraginkortasun operazionaleko gure industria-ereduak baliabideak optimizatzeko aukera ematen digu, eta, beraz, lehengai gutxiago kontsumitzen dugu. Hori lortzen da prozesu guztietan ekoizpen-eraginkortasuna handitzean, denboran, espazioan, hondakinetan, inbentarioan eta akatsetan etengabeko hobekuntza dakarren Kaizen kudeaketa-filosofia ezarrita.

Ahaleginak bateratuta, orduro kontsumitutako material metalikoen pisua % 0,3 murriztea lortu da, instalazioetako ekoizpenean. Plastikozko materialez den bezainbatean, ezin izan dira prozesuak hainbeste doitu, eta, ondorioz, ratioa hazi egin da.

Datu absolutuei begira, 26.231 tona lehengai kontsumitu ditugu. Horien jatorriaren % 31 metalikoa da (8.066 Tn), eta % 38 plastikoa (10.060 Tn), eta gainerako % 31 beste materia batzuei dagokio (8.105 Tn).



Era berean, biltzeko eta enbalatzeko materialak hobetzeko lanean jarraitu genuen. Itzultzeko kaxak ezartzeak eta enbalajeak estandarizatzeak ingurumen-inpaktua minimizatzea lortu dute.

**ENERGIA-KONTSUMOAK**

| *11. - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula* |
|---|

**Ikusi *energia-jarduna***

2022an energia-efizientzia hobetzeko hartutako neurriei dagokienez, ezinezkoa izan da inbertsio adierazgarriak egitea. Dena den, gai espezifiko txiki batzuen gainean jardun da. Hartutako neurrien artean, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

- Energia-kontsumoa: LED teknologiako lanparak % 100ean baztertzea lortzea.

- Energia-kontsumoa: Bideragarritasunaren eta aurrezpenaren azterketa plaka fotovoltaikoak instalatuta. 2023an instalazio batzuetan inbertsioa egiteko aukera.

- Aire konprimatua, konpresoreen lanordu kopurua murriztea asteburu eta jaiegunetan, eta sektorizazioa, lanean ez dauden makinak ixteko.

- Hozteko ura: Injektoreetan iragazkiak instalatzea.

# *5.4 KLIMA-ALDAKETA*

| *12. - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula* |
|---|

Mugikortasun jasangarriagoaren aldeko konpromisoa gure egunerokotasunean islatzen da. Arintzean eta aerodinamika aktiboan ditugun berrikuntzetatik abiatuta, eta ekoizpen-prozesuetatik igarota, ibilgailuaren eraginkortasuna dugu xede, eta, beraz, energia-kontsumo txikiagoa eta isurien murrizketa, horrek hirietako airearen kalitatea hobetu eta ibilgailuaren CO2 emisioen ondoriozko berotegi-efektua minimizatzen baitu.

2021ean Euskadiko instalazioetan mugikortasun arloko lehen diagnosia abiarazi zen, eta ondoren, horrekin lotuta, **Mugikortasun Plan** Iraunkor eta Osasuntsuak sortu ziren.

Kolektiboaren erantzun zabala jaso genuen, eta jakinarazi ziguten gustatuko litzaiekeela autoa partekatzea, garraio publikoa erabiltzea, eta instalazioetatik hurbil (15 km-tik beherako erradioa) bizi diren langileak prest egongo liratekeela bestelako garraiobideen bitartez (bizikleta, patinete elektrikoa) bertara joateko, horiek aparkatzeko modu egokia errazten badiegu.

Euskal Herriko instalazioetan hasi bada ere, dagoeneko zenbait ekintza egin dira beste instalazio batzuetan. Esaterako, ibilgailu elektrikoen kargagailuak jartzea Txinako instalazioan, eta supermerkatuetan erabiltzeko txekeak ematea bizikletaz sarri mugitzeagatik, Txekiakoan.



## 5.5 BIOBIODIBERTSITATEAREN BABESA

*13. - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

BATZ Groupen ekoizpen-instalazioak industrialdeetan daude, Gorbeiako (Bizkaia) parke naturaletik gertukoak izan ezik, Eusko Jaurlaritzak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu baitu eta Europako Natura 2000 Sarean sartuta baitago. Bere balio naturalistikoez harago, eremu hori eta bere ingurunea erreferentea dira, eta karga sinboliko eta kultural handia dute euskal herritar guztientzat, oro har, eta inguruko biztanleentzat, bereziki.

Zehazki, Igorreko instalazioa Mustela nutreola (bisoi europarra) espezie babestuarentzako interes bereziko eremuan dago, haren habitata Arratia ibaiaren ibaiertzean eta ibaiadarretan hedatzen baita. Hori dela eta, baldintza espezifikoak ezarri dira bai ugaztuna bai bere habitata babesteko, inguruko udalerrietan ugari dagoen Cortaderia selloana espeziearen eta bere gisako espezie inbaditzaileen aurkako plana osaturik.

Zazpigarren urtez jarraian, AZTERTU ingurumen-hezkuntzako programarekin elkarlanean aritu ginen, IBAIALDE bertsioan, Arratiako gure kokalekuetatik gertuko ibaien egoera monitorizatzeko: http://www.euskadi.eus/web01 a2inghez/es/contenidos/informacion/ibaialde_anual/es_def/index.shtml




NKNBren zerrenda gorrian agertzen diren espezieak aztertu ditugu, baita kontserbazioko zerrenda nazionaletan dauden eta gure instalazioen inguruan kaltetutako habitatak dituztenak ere. Inbentario horietan landareak zein animaliak daude, eta babes berezia behar duen landarediaren eta faunaren aurkako mehatxuak identifikatu ahal izateko egiten dira.

| | Igorre | Txekia | Zamudio | Mexiko | Kunshan | Guangzhou |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Oso arrisku larrian** | 11 Mustela lutreola, Alzoniella onatensis, Lepidochelys kempii, Squatina squatina, | 3 Mustela lutreola, anguilla anguilla, hypnum fertile | 15 Lepidochelys kempii, squatina squatina, Acipenser sturio | 1 Campephilus imperialis | 4 Aintziretako dortoka horia, Baohua Yulan, Chinese Aligator, Isoetes sinensis | 25 Zingiretako Txinako altzifrea/Txinako hiru marradun kutxa-dortoka |
| **Arriskuan (kopurua)** | 21 Raja undulata, Laccariopsis mediterranea, balaenoptera musculus | 14 Fomitopsis officinalis, Limoniscus violaceus, falco cherrug, margaritifera margaritifera | 20 Cetorhinus maximus, Austropotamobius pallipes, Neophron pernocterus | 7 Xenophoorus captivus, Onthophagus aureofuscus, Thamnophis melanogaster | 4 Tiger, Ulmus chenmuoi, changnienia amoena | 36 Tigrea/ Txinako krokodilo-muskerra/ Banbu-hostodun haritza |
| **Zaurgarria (kopurua)** | 65 Pyrgus cirsii, Hygrocybe spadicea, Tricholoma acerbum, Rissa tridactyla | 46 Koral morea, Cortinarius odoratus, Tricholoma acerbum, Nehalennia speciosa, Buchwaldoboletus lignicola | 71 Pyrgus cirsii, Hygrocibe spadicea, Tricholoma acerbum, | 9 Boletinellus merulioides, Cedrela odorata, Lepus callotis | 11 Japoniako itsas zaldia, Tianmu Mulan, Syzygium samarangense, Pekingo gekoa | 57 Japoniako itsas zaldia/ Txinako aloea/ Txinako kobra |

Espezieen kopurua eta garrantzitsuenen zerrenda

# VI. GIZARTEARI ETA LANGILEEI BURUZKO GAIAK

Gure proiektuak epe luzean arrakasta izateko konprometitutako pertsona-talde batek osatzen dugu BATZ. Horrenbestez, egunez egun lan egiten dugu helburu komun hori erdiesteko eta gure langileen dibertsitatea, aukera berdintasuna, prestakuntza eta garapena seguru eta osasuntsua bermatzeko. Azken batean, pertsonengatik eta pertsonentzako pentsatutako leku bat.

### *Pertsonen kudeaketa eredua*

BATZ Groupen pertsonak kudeatzeko ereduak pertsonak erakundean sartzen diren unetik irteten diren arte bistaratzen ditu, etengabeko garapeneko ikuspegi batekin. Employee Life Cycle ereduaz ari gara (aurrerantzean, ELC).




ELC eredua gure ESTRATEGIAREN inguruan egituratua dago, pertsonen lorpenetara bideratutako pertsonen kudeaketarako edozein estrategiaren inguruan. Nukleo horretatik abiatuta, pertsonak kudeatzeko sistemak eta prozesuak identifikatu eta garatzen dira. Horiek izango ditugu gida, haien lan-ibilbide osoan laguntzeko.

### Erakarri eta aukeratu

Pertsonak kudeatzeko oinarrietako bat BATZen. Baina "hautaketa" baino, talentua erakartzeko prozesua dela esatea gustatzen zaigu, gaitasunen araberako gure kudeaketa-ereduan oinarritua. Behar diren profilak, edo, zehazkiago, posizioarentzat eta erakundearentzat berarentzat premiazkoak diren gaitasun tekniko zein zeharkakoak (azken horiek, kooperatibismoaren balioei lotuak) identifikatzea euskarria izango da pertsonak geureganatzeko prozesuan. Geureganatze hori barne-mailan gerta daiteke, barne-sustapen modura (*"Garapena"* izeneko hurrengo atalean jorratu da gehienbat), edo kanpo-mailan, hautagai berriak erakarriz eta hautatuz.

Kanpokoak erakarri eta hautatzeaz den bezainbatean, BATZek zenbait komunikazio-bide identifikatu eta kudeatzen ditu, horien bitartez bere ingurura jo eta talentua erakartzeko:
• Unibertsitateekiko eta lanbide-zentroekiko harremanak sendotzea, modu egituratuan eta jarraituan. (Elkarlan-taula Gizartea atalean).
• Ikerketa-zentroekin edo ezagutza handia biltzen duten erakundeekin harremanetan egotea. (Elkarlan-taula Gizartea atalean)
• Enplegu Foroetan parte hartzea. (Elkarlan-taula Gizartea atalean).
• Prestakuntza-zentroek gure instalazioetara egindako bisitak hartzea aldiro, eta, era berean, geure erakundea sustatzea eta geure ezagutza zabaltzea kanpoko erakunde eta/edo zentroetan.
• BATZ Groupen dauden lan-aukerak ikusaraztea, online tresnen bidez: hautaketa-atariak, webgune korporatiboa eta sare sozialak (LinkedIn, MONDRAGON People eta ezagutza zabaltzen den beste batzuk). (BATZ Group komunikazio-politikan zehazturiko komunikazio-mapa).

Pertsona batek gurena etorri eta lehen aldiz enpresarekin topo egiten duenean, lehenbiziko erantzuna ematen zaie haren aurreikuspenei.
Lehen topaketa hori hasierako harrera egitean gertatzen da, eta hori ezinbestekoa da, hautatutako pertsonarekin landu beharreko epe luzeko harremanerako abiapuntua izateko. Harrera horretan proiektua aurkeztu behar da, pertsona horrek ondo hartua sentitu behar du, eta BATZen kultura barneratzeko aukera izan behar du: zer baliorekin funtzionatzen duen, bertako pertsonen garapenaren eta kudeaketaren alde egiteko modua, nola mugi daitekeen enpresan egunez egun (alderdi administratiboak), bere lanpostua aurkeztea (eta harekin zerikusia duten laneko arriskuen prebentzioko gaiak azaltzea), eta eguneroko lanean izango dituen harreman-sare nagusien berri ematea.

Harrera-planaren eredu berria 2020-2021eko ekitaldian ezarri zen, eta 2022an finkatu da, Kudeaketa Sistemek zehaztu dituzten baldintza berrietara egokitzeko behar diren moduluak eguneratuta. Baldintza horien artean daude, besteak beste, Informazioaren Segurtasuna, Zibersegurtasuna, Compliancea, Ingurumena, DBEO politika.

Bestalde, hautaketaren ondorioz atzerriratzea gertatzen bada, garapen profesionaleko eta erakundearen barruan balioak, egiteko erak eta barne-ezagutza transferitzeko proiektu baten barruan, enpresaren Nazioarteko mugikortasuneko programaren bidez zehazten da atzerriratze horren esparru generikoa, helmugako estalduraren zenbait alderdi, eta aberriratzearen kudeaketa, beste gai batzuen artean.

## Garapena

Pertsona hori BATZen dinamikaren parte izaten hasten denean, bere garapenaz arduratzen gara. Eginahala, konprimisoa eta lana aitortu eta sustatzen ditugu, garapen profesionalerako bide nagusi gisa barne-sustapena, aukera-berdintasuna eta lanbideen eredu baten aplikazioa sendotuz.

Horrez gain, urtero, prestakuntza-planak lantzen dira, pertsonak hazteko eta profesionalki garatzeko, ekintza teknikoak, eta, horiek ez ezik, zeharkako eremuetan garapena bermatu eta indartuko duten ekintzak ere identifikatuz (horri buruzko informazio gehiago dago *"Prestakuntza"* puntuan).

Prozesu hori burutzeko, ezinbestekoa da profil profesionalen deskribapenak izatea –proiektua ondo finkatuta dago Talde mailan–, horiek ahalbidetzen baitute posizio bakoitzean egokiro jarduteko behar diren soft-skill eta gaitasun teknikoak. Aliatu garrantzitsua da hori, ez hautaketa-prozesurako bakarrik, baita gure pertsonak garatzeko ekintzak zehazteko orduan ere.

## Konpromisoa eta atxikipena

Edozein proiektutan, arrakasta izateko, funtsezkoa da pertsona erakundearen barruan baloratua eta aintzat hartua sentitzea, eta, era berean, proiektu horren parte sentitzea ere, helburu estrategikoak bere eginez, eta horiei egiten dien ekarpenaren inpaktuaren jakitun izanda.

Horretarako, BATZek zenbait jardunbide eta barne-politika ditu zehaztuta, helburu horri begira palankarena egin dezaten, Hauek dira horietako batzuk:

- Karrera-kurbak identifikatzen dira (bai mugikortasun horizontalean bai bertikalean).
- Gizarte-onuren sistema egituratuak finkatzen dira.
- Bizitza pertsonala eta lana bateratzeko aukera ematen duten politikak zehazten dira.
- Antolamendu-ereduak hobetzen dira, pertsonen gaitasunak garatzen eta pertsona/postua egokitzen laguntzeko.

- Barne-komunikazioko prozesuak lantzen dira, pertsonen konpromisoa lortzeko oso garrantzitsuak.
- Pertsonen kudeaketa egiten da, dibertsitatea eta generoen arteko berdintasuna sustatuz eta errespetatuz.
- Etengabeko lana egiten da gure pertsonen segurtasuna, babesa eta prebentzioa bermatzeko.

*Politika guztiak eta horien deskribapena 2. puntuan (Politikak)*

## Erakundetik ateratzea

Harrera ona egitea bezala, BATZen uste dugu zeharo garrantzitsua dela gure erakundea uzteko unea ere kudeatzea. Irteteko arrazoia edozein dela ere, badakigu pertsona bakoitza zenbat ahalegindu den eta zenbat denbora eman duen gure proiektua haz dadin, eta, horregatik, uste dugu trantsizio hori erraztu behar diogula, eta, aldi berean, erakundea prestatu behar dugula prozesu hori kudeatzeko. Zehazki:

- Irteeraren arrazoia erretiroa edo aurre-erretiroa hartzea izan daiteke (eta horrek esan nahi du agian plan zehatzak daudela, eta egoera horretara igarotzen laguntzeko administrazio-prozesuak kudeatuko direla).
- Halaber, erakundea uzteak langileari lagundu beharra ekar dezake, outplacement-prozesuak martxan jarriz.

Edonola ere, norbait irteten denean erakundeak dagozkion ordezkatze-planak jartzen ditu abian, ahalik eta trantsiziorik arin eta errazena lortzeko.

***BATZen ekimenak eta ospakizunak egiten ditugu, bertako kidea izateko sentimendua sustatzeko, eta BATZ osatzen duten guztien arteko lan-harremanak bultzatzeko.***

## 6.1 ENPLEGUA

| |
|---|
| ***14. -** Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula* |

Merkatuaren aldakortasunak, are gehiago gure sektorean, eta beste zenbait kontuk –hala nola hornidura-katearen mugek eragindako inpaktua, eta gure pertsonen segurtasuna eta ongizatea bermatzeko dugun erantzukizuna– ondorioak izan dituzte enpleguan, Taldearen barruan. Nolanahi den ere, egokitu zaigun paradigmak ez du eragotzi enpleguaren egonkortasunaren aldeko hautua egiten jarraitu izana, horixe baita gure enpresa-jardueraren funtsezko zutabeetako bat (kontratazioen % 78 mugagabea da).

Ondoren datozen grafikoetan lehen aipatutako plantillaren bilakabidea zehazten da, baita 2022ko ekitaldiaren itxieran plantilla horrek instalazio bakoitzean zuen banaketa ere. Halaber, ikusarazten da enpleguaren egonkortasunaren aldeko gure apustua; izan ere, kontratazio mugagabeak eginez erantzun diegu gaur egun sektorean dugun aldakortasun-egoera dela-eta plantillan jasan ditugun aldaketei.






| Langile kopurura, sexuaren arabera (abenduaren 31n) | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| Emakumeak | 242 | 261 |
| Gizonak | 836 | 808 |
| **Guztira** | **1.078** | **1.069** |

| Langile kopuru eta portzentajea kategoria profesionalen eta adin-tartearen arabera (abenduaren 31n) | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Gainerako MOD** | | |
| 30 urtetik beherakoak | 57 | 37 |
| 30 eta 50 urte bitartekoak | 355 | 367 |
| 50 urtetik gorakoak | 124 | 91 |
| **Gainerako MOI** | | |
| 30 urtetik beherakoak | 36 | 31 |
| 30 eta 50 urte bitartekoak | 275 | 343 |
| 50 urtetik gorakoak | 114 | 78 |
| **Tarteko agintariak** | | |
| 30 urtetik beherakoak | 4 | 4 |
| 30 eta 50 urte bitartekoak | 50 | 51 |
| 50 urtetik gorakoak | 15 | 17 |
| **Zuzendaritzako karguak** | | |
| 30 urtetik beherakoak | 0 | 0 |
| 30 eta 50 urte bitartekoak | 34 | 38 |
| 50 urtetik gorakoak | 14 | 12 |

| Langile kopuru eta portzentajea kategoria profesionalen eta sexuaren arabera (abenduaren 31n) | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Gainerako MOD** | | |
| Emakumeak | 103 | 96 |
| Gizonak | 433 | 399 |
| **Gainerako MOI** | | |
| Emakumeak | 112 | 134 |
| Gizonak | 313 | 318 |
| **Tarteko agintariak** | | |
| Emakumeak | 15 | 16 |
| Gizonak | 54 | 56 |
| **Zuzendaritzako karguak** | | |
| Emakumeak | 12 | 15 |
| Gizonak | 36 | 35 |

| Kontratu moten guztizko kopurua eta banaketa (abenduaren 31n) | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Kontratazioa** | | |
| Mugagabea | 838 | 823 |
| Aldi Baterakoa | 240 | 246 |
| **Lanaldia** | | |
| Osoa | 1.047 | 1.040 |
| Partziala | 31 | 29 |

| Kontratu mugagabe kopuru osoa | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Sexuaren arabera** | | |
| Emakumeak | 146 | 154 |
| Gizonak | 690 | 669 |
| **Adin-tartearen arabera** | | |
| 30 urtetik beherakoak | 46 | 48 |
| 30 eta 50 urte bitartekoak | 538 | 584 |
| 50 urtetik gorakoak | 255 | 191 |
| **Sailkapen profesionalaren arabera** | | |
| Gainerako MOD | 411 | 387 |
| Gainerako MOI | 327 | 332 |
| Tarteko agintariak | 59 | 65 |
| Zuzendaritzako karguak | 40 | 39 |

| Aldi baterako Kontratuen kopuru osoa | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Sexuaren arabera** | | |
| Emakumeak | 95 | 107 |
| Gizonak | 146 | 139 |
| **Adin-tartearen arabera** | | |
| 30 urtetik beherakoak | 53 | 24 |
| 30 eta 50 urte bitartekoak | 176 | 215 |
| 50 urtetik gorakoak | 12 | 7 |
| **Sailkapen profesionalaren arabera** | | |
| Gainerako MOD | 125 | 140 |
| Gainerako MOI | 98 | 87 |
| Tarteko agintariak | 10 | 8 |
| Zuzendaritzako karguak | 8 | 11 |

| Lanaldi partzialeko kontratuen kopuru osoa | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Sexuaren arabera** | | |
| Emakumeak | 18 | 18 |
| Gizonak | 13 | 11 |
| **Adin-tartearen arabera** | | |
| 30 urtetik beherakoak | 1 | 0 |
| 30 eta 50 urte bitartekoak | 27 | 27 |
| 50 urtetik gorakoak | 3 | 2 |
| **Sailkapen profesionalaren arabera** | | |
| Gainerako MOD | 6 | 11 |
| Gainerako MOI | 21 | 13 |
| Tarteko agintariak | 3 | 4 |
| Zuzendaritzako karguak | 1 | 1 |







Era berean, nabarmendu beharra dago zenbait adierazlek bilakabide positiboa izan dutela. Esaterako, Talde mailako antzinatasuna gure erakundean, arestian aipatutako enplegu-egonkortasunaren zeharkako ondorioa. Zehazki, 11,11 urteko joerari eutsi zaio 2022a ixtean, aurreko ekitaldiaren itxierako adierazlearen ildo berean.




Kolektiboa lanaldi-motaren arabera banatzen den moduari dagokionez, 2022ko ekitaldian eskuratu da datu hori lehenengo aldiz: % 97k du lanaldi osoa, eta % 3k, berriz, lanaldi murriztua. Plantilla osoaren batez besteko adina, Talde mailan, 42,89 urtekoa da.




Adin-tartearen eta lanbide-kategoriaren araberako plantillaren banaketaz den bezainbatean, ondorengo grafikoetan adierazten denez, eta azken ekitaldietako joerarekin bat eginez, Talde mailako kolektiboaren ehunekorik handienak 30 eta 50 urte bitarteko adina

du, eta zuzeneko eskulanaren eta zeharkako eskulanaren kolektiboei zegokien plantillaren portzentajerik handiena 2022ko ekitaldiaren itxieran.







*(*) Plantillari dagokionez aztertutako datu guztiak urtearen itxierakoak dira.*

**17. -** *Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

Lehen adierazi den legez, merkatuaren aldakortasunak eta egoerak eta kanpo-aldaeren inpaktuak gure erakundea behartu dute aurrean genuen agertoki berrira egokitzera, baina horrek ez du eragin kontratazioa egonkor mantentzearen aldeko geure apustuari uko egitea, eta, horrenbestez, Talde mailako batez besteko antzinatasunak aurreko ekitaldikoaren ildoan jarraitu du.

Txandakatzeari dagokionez, hain zuzen ere, gauden-gaudenean –non talentua atxikitzea eta erakartzea gakoa diren pertsonen kudeaketako politikei eta jardunbideei dagokienez, eta non talentua erakartzeko lan-arloko lehia gero eta gogorragoa den–, funtsezkoa da adierazle horren jarraipena, gure pertsonek jarraitasunaren alde egingo duten ingurune profesional bat ziurtatze aldera.

Hala, 2022ko ekitaldia % 9ko adierazle batek amaitu zen. Gure langileek irauteko ingurune egokia sortzea ahalbidetzeko ekintza eta jardunak zehazteko xedez, funtsezkoa dena gure erakundea sostengatzeko, ezinbestekoa da adierazle horren jarraipena egitea.

| Kaleratze kopurua | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Sexuaren arabera** | | |
| Emakumeak | 72 | 15 |
| Gizonak | 104 | 27 |
| **Adin-tartearen arabera** | | |
| 30 urtetik beherakoak | 23 | 29 |
| 30 eta 50 urte bitartekoak | 148 | 12 |
| 50 urtetik gorakoak | 5 | 1 |
| **Sailkapen profesionalaren arabera** | | |
| Gainerako MOD | 38 | |
| Gainerako MOI | 19 | |
| Tarteko agintariak | 0 | |
| Zuzendaritzako karguak | 2 | |

BATZ Taldea osatzen duten zenbait enpresen ezaugarriak direla medio, non 2 lantoki sozietate kooperatiboak baitira, ordainsaria kooperatibaren emaitzen araberakoa da. Horrenbestez, batez besteko ordainsariaren datu gehigarria kalkulatzeko aintzatesteko datuak ez direla alderagarriak uste dugu, eta ez du informazio adiezgarririk ematen item honen azterketari begira.

# 6.2 LANAREN ANTOLAKETA

| **22. -** *Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula* |
|---|

Gure pertsonek bizitza pertsonala eta lana bateratu ahal izatea funtsezko mugarria da gure erakundearen kudeaketan. Gurasotasun-egoeretako ohiko baimenez gainera, BATZen badugu bestelako tresnarik ere ordutegi-malgutasuna sustatzeko, lantokira sartu eta bertatik irteteari, otorduak egiteari, ordu estrak kudeatu eta gozatzeari, jaiegunetan egindako lan-plusei, udako lanaldi murriztuei eta abarri dagokienez. Horiek guztiak araututa eta jasota daude, bai aparteko lanorduen eta jardunaldi malguaren politikan, bai instalazio bakoitzeko hitzarmen kolektiboetan eta barne-araudietan. Era berean, lana eta familiaren kontziliazio politika nabarmendu behar da, baimenen, eszedentzien edo lanaldi-murrizketen arloko mekanismoak biltzen dituen dokumentua. Hitzarmen kolektiboaren barnean dauden langileen portzentajea % 100ekoa da.

Ildo horretan, eta gure erakundeak ahalmen txikia duen arren adierazle horretan eragiteko, BATZek Talde mailako gurasotasun-baimenen banaketa zehaztuko dugu jarraian. Datuek adierazten dutenez, gure erakundean 2022an mota horretako baimenak hartu dituzten gehienak gizonezkoak izan dira.




Halaber, gure lan-antolaketaren azterketaren ezinbesteko zati bat absentismo-tasaren jarraipenetik abiatzen da. Adierazle horrek talde-mailan izan duen bilakabidearen aztertuta, ikusten da pandemiaren eragina apurka-apurka egonkortuz doala. Hala, 2022ko ekitaldiko absentismo-tasa (% 7,08) txikiagoa izan da aurreko ekitaldikoa baino. Absentismo egunak 1.120 (galdurako egunak) izan dira.




Kalkulua egiteko formula: **Absentismoa (%)** = ordu EZ produktiboen orduak / guztira lan egindako orduak (lan-baimenak, lizentziak edota amatasun / aitatasun bajak aintzatetsiz)

| **20. -** *Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula* |
|---|

BATZ Taldeak ez du berariazko neurririk lan-deskonexioari dagokionez, baina, nolanahi ere, alderri hori bereziki landu zen pandemia-garaian, informazio-pilulen bitartez, pertsonen ehuneko handi bat urrutiko lanean aritu baitzen, COVID-19a zela-eta artean zegoen egonkortasun ezagatik eta errealitateagatik. Pilula horien asmoa gure pertsonen atseden-orduak babestea zen, ahalik eta neurririk handienean eragozteko bizitza pertsonalaren eta lanaren arteko bateragarritasunak jasandako inpaktua.

***21.*** *- Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

BATZ Groupek enplegua eskuratzea errazten die desgaitasuna duten pertsonei, zuzeneko kontratazioen bidez edo, bestela, produktuak eta zerbitzuak azpikontratatuz enplegu-zentro bereziei. Lankidetza horrek forma desberdinak izan ditzake, geure jarduera zer herrialdetan gauzatzen ari garen. 2022ko abendua amaituta, 2 pertsona desgaitu zeuden taldean lanean. Normalean, desgaituen enpresetan azpikontratatzen dira lanak, Lantegi Batuak-en adibidez.

## *6.3 OSASUNA ETA SEGURTASUNA LANEAN*

***23.*** *- Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

2022an BATZen geure pertsonak Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren (aurrerantzean, LSO) alorrean trebatzearen aldeko apustuari eutsi diogu, uste baitugu ardatz estrategikoa dela geure helburuak arrakastaz bete ahal izateko. Hartara, 2022ko ekitaldian gai horri buruzko 2.418,5 ordu eman dira guztira. Hau da, iazko ordu kopuruaren antzekoa, eta honelakoa izan da banaketa atalez atal:







2018an indarrean zegoen gure LSOko ziurtagiria egokitzea erabaki genuen. Hala, OHSAS 18001ean oinarritutakoaren ordez, nazioarteko ISO 45001 arau berria ezarri genuen. Une hartan, Mondragon taldeko enpresen artean egokitzapen hori egiten lehen aitzindarietakoa izan zen BATZ, eta 2021ean ziurtagiria berriztatu zen. Era horretan, geure pertsona eta bezeroei erakutsi diegu segurtasuna eta osasuna berezko balioak direla gure kooperatibaren DNAn.

Era berean, 2022an nabarmentzeko ekintza modura, 2021an LSOari buruzko zenbait adierazle global martxan jarri izana aipa genezake, instalazio guztietarako berdinak. Proiektu horren xedea hobekuntza da, eta beste departamentu batzuekin batera egiten genituen aldiroko auditoretzetan identifikatu da. Auditoretza horien helburua Taldearen instalazio guztietan LSOa homogeneizatzea zen, eta, horrez gain, LSOaren eta erakundearen beste arloen arteko integrazio erreala lortzea. Beraz, istripu-tasari buruzko adierazleak denbora errealean erakusteko panel bat garatu zen.

BATZ osatzen dugun pertsona guztion zereginak eta jarduerak egitea errazten eta ziurtatzen dugu ingurune seguru batean, prebentzioko, segurtasuneko eta ergonomiako baldintza guztiak betetzen direla kontrolatuz, eta gure jarduera behar bezala gauzatzeko beharrezko prestakuntza eta metodologia eskainiz. Ildo horretatik, laneko segurtasun- eta osasun-arloko baliabideak kudeatzeko sistema ziurtatua dugu ezarrita, eta laneko prebentzio eta arriskuen plana ere bai. Era berean, laneko osasun- eta segurtasun-politika dugu, ekoizpen-instalazio bakoitzera egokitzen dena.

Prebentzio-, segurtasun- eta osasun-arloko informazio-, kontsulta- eta partaidetza-ekintzak garatzen ditugu. Ekintza horiek laneko segurtasun- eta osasun-batzordeen (LSOB) eta lantegietako prebentzio-ordezkarien bidez antolatzen dira, eta, legeak hala eskatzen ez duen kasuetan, kanpoko prebentzio-zerbitzuen bidez. Beren arduren artean daude prebentzio-jarduerak planifikatzea eta lehendik ez dauden arriskuak sortzen dituzten edo daudenak handitzen dituzten teknologiak txertatzea dakarten ekipamenduak, instalazioak edo prozesuak aukeratzea. Langileen segurtasun eta osasunean ondorio nabarmenak izan ditzakeen beste edozein ekintzaren berri emango du LSOBk.

Ezbehar-tasari buruzko adierazleei dagokienez, jarraian erantsitako laburpen-koadroan ikus daiteke ezbehar-tasaren bilakabidea, gertakari-motaren.

BATZ Groupeko istripuen eta gertakarien sailkapena:




BATZ Groupeko indizeen bilakabidea:

Jarraian, maiztasun-indizearen bilakabidea zehaztuko dugu. Ikus dezakegun bezala, aurreko urteekin alderatuz joera-aldaketa bat gertatu da. Istripuaren ondorioz galdutako lanaldiei dagokienez, joera aldaketa bat ere ekarri du, eta 2020ko tasa bera erregistratu da.






*(*) Adierazleen kalkulua*
*Larritasun indizea (galdutako lanaldi kopurua/lanean emandako ordu kopurua)*10E3*
*Inzidentzia indizea = (baja eragin duten lanaldiko istripuen kopurua / langileen kopurua) x 100.000*
*Maiztasun indizea (istripu kopurua/lanean emandako ordu kopurua)*10E6*

Geure mediku- eta erizaintza-zerbitzua dugu langileen artean, eta akordioak ditugu mutualitateekin eta mediku-zerbitzuetako beste erakunde batzuekin gure instalazio guztietan. Gainera, osasun-kanpainak eta jarduerak sustatzen ditugu aldiro, bizimodu osasungarria izateko ohiturak zabaltze aldera. Honako hauek, hain zuzen ere:

*Gaixotasun kronikoak hautemateko kanpaina, osasunaren astea, txertaketa-kanpainak (Influentza, TD, hepatitisa, ugalketa-osasuna, lehen sorospenak), elikadurari buruzko saioak, tabakismoaren aurkako kanpaina, osasun-lasterketak...*

## 6.4 GIZARTE-HARREMANAK

*24. - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

Elkarrizketa sozialaren antolaketa, langileei informazioa emateko eta kontsulta egiteko eta haiekin negoziatzeko prozedurak barne, lurralde bakoitzeko legeriaren arabera zehazten da. Guretzat, lehentasunezkoak dira sindikatu- eta lan-legeria errespetatzea, diskriminaziorik ezaren politikak, jokabide-kodearen betetzea, eta laneko segurtasuna eta osasuna. 2020an, langileen % 100 eskubide horiek garatzen dituzten hitzarmen kolektiboek estaltzen zuten.

BATZ enpresaren barne-komunikaziorako kanalak, helburuak eta oinarrizko edukiak, bai eta BATZen barne-komunikaziorako prozesuen dinamizazioa eta eraginkortasuna erraztu beharko duten igorleak ere, irismen globalekoak dira enpresa eta filial guztientzat. Aurrekoa gorabehera, eta Taldea osatzen duten enpresen kultura-, antolaketa- edota sozietate-desberdintasunak direla eta, dagozkien organoetan komunikazio-bide gehigarriak edo toki-aplikazioko egokitzapen jakin batzuk onartzea planteatu ahal izango dute, betiere BATZ Groupen politika globalean zehaztutako ildoak errespetatuz gero.

*Eremu instituzionala*
Intranet korporatiboa
Newsletter
Eremu komunetako ikus-entzunezko baliabideak
BatzZmobile plataforma (BATZ Zamudio)
Iragarki-tabloia
Informazio kioskoa (BATZ Mexicana)
Helbide elektronikoa

*Kudeaketa eremua eta exekutiboa*
Kolaboratzaileen batzarra
Arduradunarekin batzarrak
Harrera plana
Asebetetze-inkesta
Arduradun-kolaboratzaileen despatxoak
Jardunaren ebaluazioa
Kaizen eguneroko batzarra
Kudeaketa-sistemetako aldizkako komiteak

*Kooperatibaren berezko kanalak*
Batzar orokorra
Batzar informatiboak
Aholku txikiak

Gure instalazio guztiek (% 100ek) herrialde bakoitzean aplikagarri den legeria betetzen dute. Kooperatiben kasuan, horien idiosinkrasia berezkoaren ondorioz, ez dugu hitzarmen kolektiborik. Baina, horren ordez, aplikatzen zaigun legeriak betetzen dituen barne estatutuak eta erregelamenduak ditugu, askotan legeria bera hobetuz.

## 6.5 PRESTAKUNTZA

*25. - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

Automobilgintzaren ingurune zeharo dinamikoan, zeinean ezinbestekoa den atxikitzea ahalbidetuko duten prozesuen bitartez kudeaketa egitea, gure profesionalen garapena oinarrizko lan-ardatza da, aukera ematen baitigu beharrizan errealei eta merkatuan gertatzen diren aldaketei egokitzeko. Horretarako, garatu beharreko arloak (prestakuntza- eta garapen-planak) identifikatzen dituen sistema bat dugu oinarri, Gaitasunen araberako Kudeaketa Ereduaren barrukoa. Eredu horretan lanpostuen deskribapenak eta pertsonen gaitasunen araberako ebaluazioa egiten dira, baita haien geroko garapenarena ere. Garatuko diren –eta ondoren prestakuntza- eta garapen-plan horietan integratuko diren– arloen identifikazioa dela-eta, aurreikusten da, gaitasun teknikoak garatzeko ekintzak ez ezik, zeharkakoak ere egitea.

*BATZen gure plantilla osoari eragiten dioten prestakuntza-jarduerak sustatzen dira, hizkuntzei, gaitasun korporatibo eta teknikoei eta kudeaketa-sistemei buruzkoak, batzuk aipatzearren.*

Jarraian jasotzen den grafikoan ikus daitekeenez, aurten egindako prestakuntza-orduak modu nabarian gutxitu dira plantillako doikuntzen eta salmenten igoeren ondorioz, eta emaitzen kontuan hobetzeko xedez




Prestakuntza-saio horiek arloz arlo izandako banaketari dagokionez, jarraian zehazten da horietako bakoitzaren pisu erlatiboa, eta, Laneko Osasunari eta Segurtasunari buruzko epigrafean adierazi dugun bezala, hori da horri dagokionez inbertsiorik handiena egin den arloa. Era berean, azpimarratzekoa da Ingurumen arlora bideratutako prestakuntza handitu dela. Izan ere, azken lau urteetan arlo horretako prestakuntzari ordu gehien eman zaion ekitaldia izan da, prestakuntza-orduak guztira jaitsi egin diren arren.




Une hauetan ezin da prestakuntzari buruzko informazioa kategoria profesionalen arabera banakatzea, baina datorren urteko txostenean informazio hori jasoko da.

## 6.6 DESGAITASUNA DUTENEN IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

| **26. -** *Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula* |
|---|

BATZ Groupek hainbat lan-ildo garatu ditu enplegagarritasunaren, integrazioaren eta gaitasun desberdinak dituzten kolektiboei laguntzearen inguruan.

Alde batetik, eta lehen adierazi bezala, BATZen desgaitasunen bat duten pertsonei enplegua lortzeko erraztasunak ematen dizkiegu, bai zuzeneko kontratazioaren bidez bai enplegu-zentro bereziei produktuak eta zerbitzuak azpikontratatuz. Bestetik, lankidetzan dihardugu gizarteratzea eta lan-merkatuan txertatzea sustatzeko elkarteekin eta ekimenekin, txosten honen Gizartea atalean ageri den bezala.

## 6.7 BERDINTASUNA ETA DIBERTSITATEA

| ***18. eta 19.*** **-** *Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula* |
|---|

BATZ Groupek bertan lan egiten duten pertsonen ongizate ekonomikoaren, aniztasunaren eta garapenaren aldeko apustua egiten du. Horregatik, bere langileen ordainsarien gardentasuna eta sexuagatiko soldaten arloko diskriminaziorik eza bermatzen ditu, emakumeen eta gizonen arteko ordainketa-berdintasuna ezartzeko lanean, barne-sustapeneko, hautaketako eta garapeneko politiketan oinarrituta, bai eta lanbideen eredu baten aplikazioa ere, lanbideak, horien deskribapena eta ordainsari-maila barne hartzen dituen esparrua.

Modu horretan, soldata-arrakala % 4,18ekoa izan zen 2022an. Kalkulatzeko, oinarritzat hartzen da oinarrizko soldataren eta emakumeek gizonekin alderatuta duten ordainsarien ratioa, jarraian azaltzen den formulan adierazten den eran:

*(E-G) / M x100%*
*G Gizonezkoen ordu bakoitzeko ordainketa-tasaren batez bestekoa*
*E Emakumezkoen ordu bakoitzeko ordainketa-tasaren batez bestekoa*

Soldata-arrakala lantzen jarraitu beharreko aldagaia bada ere –ez maila instituzionalean bakarrik, baita antolakuntzari dagokionez ere, eremu horretan tratu-berdintasun eraginkorra bermatuko duten politika eta tresnak zehaztuz–, nabarmendu beharra dago BATZ Groupen adierazlea baxuagoa dela gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan (% 17,9 inguru Estatuan (% 18,7 inguru ere bai) eta dauden tasak baino (iturria: EIN).

| **27. -** *Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula* |
|---|

Gure proiektua kooperatiba modura sortu zen, eta gaur egun munduan presentzia eta kultura anitzeko izaera ditu. Mundu-mailako taldea, osatzen dugun pertsonon dibertsitatea barne hartzen duena. Aurrekoarekin bat etorrita, eta gure jokabide-kodean zehaztuta dagoen bezala, espresuki hitzematen dugu ez dugula inor diskriminatuko arraza, erlijio, sexu, adin, nazionalitate, sexu-orientazio, genero-identitate, egoera zibil, desgaitasunagatik edo diskriminazio-iturri izan daitekeen beste edozein arrazoirengatik.

Horrela, ahalegina eta lana aitortzen eta sustatzen ditugu, barne-sustapeneko politiken, hautaketa- eta garapen-politiken, lana eta familia kontziliatzeko politiken eta lanbideen eredu baten aplikazioaren bidez. Oso barneratuta dugu sustapena pertsonen merezimenduan, gaitasunean eta banakako jardunean oinarritzen dela.

Era berean, sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloa dugu, 2022an berritu dena, non BATZen gerta daitezkeen sexu-jazarpen edo sexuan oinarritutako jazarpen kasuak prebenitzeko eta, hala badagokio, haiek artatzeko prozedurak eta baliabideak jasotzen diren.

Mexikoko BATZen, gainera, Estatuko Gobernuarekin estu-estu lan egiten jarraitzen dugu, 2019an eman ziguten Enpresa barne-hartzailearen aitorpenari eutsita.

BATZ Groupek arlo horretan jarraitzen dituen adierazleak berrikus daitezke, Jarraian ikus daitezkeen honako hauek dira, hain zuzen ere: Gure erakundeko emakumeen kolektiboaz den bezainbatean, emakumeen portzentajea % 22,45ekoa da BATZ Groupen, aurreko urteetako datuen azpitik kokatuz.




Analisi hori Taldeko goi-zuzendaritzako postuetan eginez gero (goi-zuzendaritzatzat joz Zuzendaritza Batzordeak osatzen dituzten posizio guztiak, Talde mailan zein maila lokalean), emakumeen presentzia % 25 ingurukoa da.




*Politika guztiak eta horien deskribapena 2. puntuan (Politikak)*

### *Berdintasun-plana*

Gizon eta emakumeen berdintasunari buruzko indarreko lege esparrua betez, 2013an, BATZ S. Koop-en kanpoko berdintasunaren diagnostiko bat egin genuen gai horri buruz, oso emaitza onak lortuz. Diagnostikoaren ondorioz, plan bat egin genuen ekintza zehatzekin eta berdintasun batzorde tako arlo bat eratu genuen. Batzordea negozio ezberdinetako partaideek osatzen dute, lau urteko indarraldia du eta kideak urtean behin biltzen dira. 2022an Batzordea eguneratu egin da, eta jadanik ezarritako lan-ildoei jarraipena eman zaie.

Berdintasun-planeko ekintzak hiru ardatzetan banatzen dira: balioak, pertsonen kudeaketa eta komunikazioa. Plana matrizeari mugatzen zaio, baina azpimarratzekoa da BATZek legediaren printzipioak betetzen dituela, kudeaketa-plan aurreratua eta lanbideen mapa baititu. Izan ere, berdintasuna (era guztietakoa) guztiz barneratuta dago Talde osoan.

## Ekimen hauek bat datoz Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin



# VII.GIZA ESKUBIDEAK

*28. - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

## Gure Jokabide kodea

BATZ Groupek jokabide-kode bat du 2017tik. Kode hori BATZ osatzen dugun pertsonen jokabide arduratsua arautzeko prozedura eta arau sorta baino askoz gehiago da. Jokabide-kodearen
helburua BATZ Groupen aurrez zegoen enpresa-kultura finkatzea da. Konpainiak berezko dituen gure balioen gainean eraikitako kultura
Kodearen betetze-maila lankidetzan, konfiantzan eta errespetuan oinarritzen da, baita BATZ taldea ordezkatzen duten pertsonen eta hirugarrenen arteko komunikazioen konfidentzialtasunean.

Jokabide-kode hori gure Betekizun edo Compliance programaren barruan dago. **BATZek bere egindako prozedura eta jardunbide egokien multzoa, aurrean ditugun arrisku operatibo eta legalak identifikatu eta sailkatzeko**, eta horien aurreko prebentzio, kudeaketa, kontrol eta erreakzioko barne-mekanismoak ezartzeko.

Dokumentu honetan hainbatetan aipatu dugun bezala, erakundeok aldaketa handiei aurre egin behar izan diegu, eta aldaketa horiek, era berean, gurekin harremana duten interes-taldeek gure proiektuaz dituzten aurreikuspenei eragin diete. Arrazoi horregatik, 2021ean geure Jokabide-kodea berrikusi zen. Bereziki, honako alderdi hauetan jarri genuen arreta:

- Legetik eratorritako balizko aldaketak: zigor-arloko arauak, merkataritza-arlokoak, fiskalak, lan-arlokoak, administratiboak, sektorialak...
- Enpresako gidalerroen, politiken eta gainerako barne-araudien eguneraketa, 2021ean egin genuena.

Goiburu handiei dagokienez, eta aurreko bertsioan ere bazeuden arren, dokumentu berrian zehatzago azaldu zen honako hauekiko lerrokatzea eta horiek betetzeko mekanismoak: Nazio Batuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE) Funtsezko Hitzarmenak eta ELGAren gidalerroak. Eremu bi horiek gero eta gehiago eskatzen dituzte gure interes-taldeek, eta, batez ere, gurekin harremana duten OME-ek.

### Aplikazio-eremua



Jokabide Kodea BATZ talde osoan bete beharrekoa da, maila orokorrean, alde batera utzi gabe hemen deskribaturiko gutxieneko eta nahitaez bete beharreko baldintzak sendo ditzaketen tokiko legeriei zor zaien errespetua.

### Nori aplikatzen zaio Kodea



BATZ taldeko pertsona guztiei, barne hartuta BATZ S. Koop-en kontrolpeko Sozietateak.

### Kodearen zabalkundea



Jokabide Kode honen berri emango zaie BATZ Groupera heldu berri diren Pertsona guztiei, horretarako ezarritako Harrera Planaren bitartez. Jokabide-kodea, integratuta daude langileentzat, 2022an instalazio bakoitzean zabaldu zen, bileren, intraneten eta newsletter korporatiboen bidez. Hirugarrenei dagokienez, Jokabide Kodearen webgunearen edo argitalpen espezifikoen bidez zabaltzen da, aurreko bertsioa zabaldu zen bezala. BATZ Groupen Kontrolpeko Sozietate bakoitzeko Gerentziaren erantzukizuna izango da Jokabide Kodearen zabalkuntza benetan egin dela ziurtatzea.

### Betetze Batzordea



BATZeko Betetze Batzordeak, Betetze Zuzendaritza (Compliance Officer) mahaiburu dela, eskumena du betetze funtzioaren berezko arlo guztietan. Dokumentua eguneratzearekin batera, batzorde berri bat eratu zen.

### Urraketa eta Kanal Etikoari jakinarazpena



Jokabide Kode hau ez betetzeak Compliance Program urratzea dakar, eta lan- edo sozietate-mailako zigorrak eragin ditzake, dagozkion zigor administratibo edo penalak aldera utzi gabe.

Jokabide Kodea errazago betetzeko, Kanal Etiko bat dago, konfidentziala eta barne-mailakoa, zeinaren bidez:

- Jokabide Kodearen interpretazioari edo aplikazio praktikoari buruzko balizko zalantzak kudeatzen diren.
- Kode honen balizko arau-hausteak jakinarazten diren.

Jokabide Kode hau edo hura garatzen duten Protokoloen Hobekuntza Arlo baten edo Ez-betetze baten berri duen BATZeko edozein Pertsonak zuzenean jakinarazi beharko dio Betetze Zuzendaritzari, Kanal Etikoaren bidez.

Jakinarazpen-egileari Kanal Etikoari jakinarazitakoarekin lotutakoaren aurrerapenen berri emango zaio.

**2022an ez da jaso kode hau betetzeari aplikatzen zaion jakinarazpenik.**

Kanal etikoari dagokionez, 2023. urte honetarako, salaketa-prozesua edo salaketen bidea hobetzeko helburua du, legearekin betetzeko, anonimoa izateko moduan (baita complianceren arduradunarentzat ere).

| |
|---|
| ***29. -** Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula* |

## *BATZ osatzen dugun pertsona guztien portaera gidatzen duten printzipioak*

Nahitaezko lana agintzeko debekua eta kontratazio-politika

BATZ Taldeak ez du behartutako edo derrigorrezko lanik onartzen, LANEren Oinarrizko Lan Arauekin bat etorriz.

BATZ Groupek ez du onartzen, ez zuzenean ez zeharka, Pertsonen borondatea mehatxuen, zigorren, pribazioen, esklabotza edo erdiesklabotza erako formulen edo Giza Eskubideen beste edozein urraketa bidez behartuta lorturiko lana. BATZ Groupeko kontratazio-politika bat dator indarrean den legeriarekin, eta barne hartzen du, haren arabera, gizarte-babeserako eskubidea dakarren guztia, lan egonkor eta kalitatezkoarekin konpromisoa adierazten duen guztia eta bizi-maila duina asetzeko soldata politika ezarriko duen guztia.

BATZ Taldea bere merkataritza-jardueretan behartutako edo legez kanpoko lan ori erabiltzearen aurka dago.

BATZ Taldeak:
- Ez du indarrik erabiliko.[2]
- Ez ditu bere langileak behartuko behartutako edo esklabotzako lanak egitera.

BATZ Groupek Pertsonen itxaropenak eta beharrak artatzen ditu, haien bizitza pribatuaren eta profesionalaren artean oreka egokia lortu nahian, hartzen diren neurriek erakundearen lehiakortasuna ez kaltetzeko moduan eta arreta berezia eskainita mendeko pertsonen zaintzari dagozkion pertsonen betebeharrei.

Gizakien trafikoa debekatzea eta atzerriko herritarren babesa.

BATZ Taldeak bat egiten du atzerriko herritarrak babestearekin, atzerritartasunari buruzko araudia betez.

BATZ Taldea osatzen duten Pertsonek ez dute laguntzarik emango Europar Batasuneko Estatu bateko nazionalitaterik ez duen pertsona bat Estatuan sartzeko, egoteko edo ibiltzeko, atzerritarren sarrera edo zirkulazioari buruzko legedi aplikagarria urratzen duen eraren batean.

Atal honekin zerikusia duen gertakaririk atzemanez gero, Betetze Batzordeari jakinaraziko zaio, zergatia aztertzeko eta dagozkio ekintza zuzentzaileak eta prebentziokoak zehazteko.

Haurren lana debekatzea eta adingabeak babestea

Adingabeen babesa BATZ Taldearen Printzipio Etiko bat da, eta berez dakar haurren lana ez baliatzea, adingabeei haurtzaroa, ahalmenak eta duintasuna kendu eta haien garapen fisiko eta psikologikorako kaltegarria dela ulerturik.

Era berean, haurren lantzat joko da lan egiteko gutxieneko adin legalera iritsi ez diren adingabeak enplegatzea. BATZ taldeak bermatu egingo du oraindik 18 urte bete ez dituzten legezko langile gazteek gauez edo ordu estrak eginez lanik egiten ez dutela, eta osasunerako, segurtasunerako edo garapenerako kaltegarriak diren lan-baldintzen kontrako babesa dutela. Hori guztia, Gutxieneko Adinari buruzko 1973ko Hitzarmenarekin (138. zk.) eta Europar Batasuneko 2012/C 326/02 Oinarrizko Eskubideen Gutunarekin bat etorriz.

BATZ Taldeak ez du adingaberik kontratatuko,[3] eta langile guztien jaiotza-data jasotzen duen erregistro bat izango du.
Gure instalazioetan adingaberen bat dagoela atzemanez gero, Betetze Batzordeari jakinaraziko zaio, kontratua indargabetzeko, eta, era berean, zergatia aztertu eta dagozkion ekintza zuzentzaileak eta prebentziokoak zehaztuko dira.
BATZ Taldeak bermatu egingo du langile gazteen zereginek ez diotela trabarik egiten haiek eskolara joateari, eta errespetatuko da langile gazteen lan- eta eskolaratze-denbora, guztira, ez dela 10 ordutik gorakoa izango.

Berdintasuna eta lan-giro adeitsua

[2] Behartutako lantzat hartzen da zigorra edo ondasunen konfiskazioa (NANa, pasaportea, etab.) jasateko mehatxupean egiten den eta pertsonak bere borondatez egiten ez duen edozein zeregin.

[3] Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE - ILO) Lanerako gutxieneko adinari buruzko 1973ko hitzarmenaren arabera, haurtzat joko dira 15 urtetik beherako pertsona guztiak, tokiko legeek goragoko adina edo derrigorrezko eskolaratzea ezartzen duten kasuetan izan ezik; horietan, adin altuena aplikatuko da.
Tokiko legediek 13 eta 15 urte bitarteko edo 12 eta 14 urte bitarteko pertsonak enplegatzea baimendu dezakete, honelako zereginetarako:
- Adingabearen osasunari edo garapenari kalte egiten ez dietenak; eta
- Eskolara edo prestakuntza-programetara joatea eragozten ez dutenak.

BATZ Groupen helburua da lan-giroan konfiantza eta elkarrekiko begirunea nagusitzea; horretarako, Pertsona guztiek sustatuko dituzten harremanak, maila profesional guztietan, oinarrituko dira elkarrekiko begirunean, zintzotasunean, adeitasunean, konfiantzan eta talde-lanaren baitako laguntzan eta ahaleginean, lan-giro adeitsua sortuta lankideen, zuzendarien eta hauen mende dauden pertsonen artean, lan-giro positiboa lortzeko.

Gure hautaketa-politika zorrotza eta objektiboa da, eta hautagaien meritu akademiko, pertsonal eta profesionalak besterik ez dugu kontuan hartzen, bai eta BATZ Groupen beharrak ere.

BATZ Groupen prestakuntza-programek aukera-berdintasuna eta lan-ibilbidea garatzeko berdintasuna bermatzen dute, eta aktiboki laguntzen dute Taldearen xedeak lortzen. Era berean, lan-esparruan gora egitea Pertsonen merituan, gaitasunean eta norbere lanean oinarritzen da.

Aurrekoaren arabera, espresuki konprometitzen gara inor ez diskriminatzera bere arraza, erlijio, sexu, nazionalitate, sexu orientazio, genero identitate, egoera zibil, desgaitasunagatik edo diskriminazioa eragin dezakeen beste edozein arrazoigatik.

Elkartzeko askatasuna, negoziazio kolektiboa eta kanpo jarduerak

BATZ Taldeak errespetatzen du bertan dauden Pertsonak jarduera sozial eta publikoetan aritzea, haien lan-jarduerari trabarik egiten ez badiote.

BATZ Taldeak sindikatuetako kide izateko eskubidea eta lan-eremuaren barruan elkartzeko eta negoziazio kolektiboa egiteko askatasuna errespetatzen ditu. Pertsonek alderdi politikoekin edo helburu publikodun bestelako entitate, erakunde edo elkarteekin duten lotura izaera pertsonalekoa izango da argiro, BATZ Taldearekiko harreman oro saihesteko.

Pribatutasuna, datu pertsonalen erabilera eta konfidentzialtasuna

BATZ Groupek Pertsonen intimitate-eskubidea errespetatzen du, eskubide horren baitako adierazpide guztietan, hala nola Internet eta gainerako komunikabideen bidezko Pertsonen komunikazio pertsonalak. Bereziki, datu pertsonalen pribatutasuna eta konfidentzialtasuna errespetatuko dira. Datu pertsonalak soilik eskuratuko dituzte enpresako langile jakin batzuek, behar bezala baimenduta eta Konfidentzialtasun Akordioa sinatuta.

Ondorioz, BATZ Groupek konpromisoa hartzen du datu pertsonalak ez zabaltzeko, salbu eta interesdunek baimena ematen badute eta legeak agintzen duenean edo ebazpen judizial edo administratiboak bete behar direnean. Datu pertsonalak inola ere ez dira erabiliko legeak edo kontratu bidez aurreikusitako xedeen bestelako helburuetarako.

Bezeroak eta hornitzaileak

BATZ Groupek, bere hornitzaileak hautatzeko prozesuetan, iraunkortasunean eta erantzukizun sozialean oinarrituriko printzipioak aplikatzen ditu, eta jardunbide sozialki arduratsuen aplikazioa sustatzen du erakundearen hornidura katearen bitartez. Pertsona guztiek, hornitzaile eta bezeroen hautaketa-prozesuetan, kalitate-, egokitasun-, kostu- eta iraunkortasun-irizpideak aplikatu beharko dituzte, betiere BATZ Grouparen interesen alde eginda. Betebehar hori bereziki bete behar dute hornidura eta zerbitzuen kontratazioari buruzko erabakiak hartu behar dituztenek, bai eta Bezeroekin egin beharreko eragiketen baldintza ekonomikoak erabakitzen dituztenek ere.

BATZ Taldeak Hornitzaileen Jasangarritasun Politika bat du, eta horretan jasota daude BATZ Taldearen hornitzaileek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak, etika korporatiboari, ingurumena babesteari, baliabideak kontserbatzeari, eta Giza Eskubideei eta gizarte-estandarrei dagokienez. Era berean, BATZ Taldearen hornitzaile guztiek nahitaez Jokabide Kode hori bete behar dutela ezartzen du.

Hornitzaile, Bazkide eta Bezeroekin izan beharreko harremanetarako, aplikagarria da kode honen 5.3. atalean ezarritako Ustelkeriaren Kontrako Politika.

Ondorioz, debekatuta daude eroskeria eta komisio oro, Hornitzaileei, Elkartutako Pertsonei eta Bezeroei dagokienez, eta ezin izango zaio eman legez kanpoko inolako abantailarik eman ondasunak edo zerbitzuak erosi edo kontratatzeko ardura duten beste enpresetako pertsonei, beren betebeharrak eta legedia urratuz BATZ Taldearen zerbitzuak edo produktuak aukera ditzaten.

2022an ez da jaso inolako komunikazio edo salaketarik helburu horretarako ezarrita dauden kanalen bitartez.

**Ekimen hauek bat datoz Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin**









# VIII. USTELKERIA ETA EROSKERIA

*30. - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

Agintariekin, Erakunde Arautzaileekin eta Herri Administrazioekin izan beharreko harremanak lankidetza- eta gardentasun printzipioetan oinarrituko dira.

BATZ Groupek Herri Administrazioekin dituen betebeharrak beteko ditu, bereziki Herri Ogasunarekin, Gizarte Segurantzarekin eta diru-laguntzak ematen dizkiotenekin.

**Ustelkeria**

BATZ Group ustelkeria-mota ororen contra dago, bai eta etekin edo abantailaren bat lortzeko BATZ taldetik kanpoko pertsonengan legez kontra eragitearen aurka ere. Estortsioa eta eroskeria espresuki debekatuta daude, legez kanpoko edozein abantaila-mota zuzenean edo zeharka eskaintzea edo hitzematea barne, eta influentzia-trafikoa ere debekatuta dago.

Atal honetan ezarritako debekuek dagokion norbanako, agintari edo funtzionario publikoarekin ahaidetasunak edo adiskidetasunak hertsiki loturiko pertsonei ere eragiten diete.

**Opari politika**

Oparien xedea da BATZ Grouparen markairudia sustatzea. BATZ Group osatzen duten zuzendariek eta gainerako Pertsonek ezingo dituzte eman, eskatu edo onartu, zuzenean edo zeharka, opariak, gonbidapenak, mesedeak edo ordainak, eskudirutan edo espezieetan, edozein motatakoak izanda ere, legez kanpoko edo gure Jokabide Kodearen kontrako helburuak lortzeko.

**Esportazioak**

Esportazioen kontrolaren esparruan, ondasunen mugaz gaindiko trukea debekuen, murrizketen, agintarien onespenaren eta bestelako ikuskapen-neurri batzuen menpekoa da.

Inportazioko eta esportazioko jardueretan, BATZ Taldeak ondasunen, zerbitzuen eta informazioaren inportazioari eta esportazioari buruzko arau guztiak betetzen ditu, bai legedi aplikagarriak ezarritakoak bai BATZ Taldearen barne-arauditik eta beste operadoreek ezarritako kanpo-arauditik eratorritakoak, eta haren hornitzaile guztiek dute horiek betetzeko beharra.

Guztiz debekatuta dago negozioak egitea dagozkien herrialdeetako zehapen-zerrenda ofizialetan dauden pertsonekin edo enpresekin, entrega-prozesua edozein dela ere. Berariaz debekatuta daude kontrabandoarekin zerikusia izan dezaketen jarduketak.

Ondasunak eta zerbitzuak inportatzeari eta esportatzeari buruzko erabakiak hartzeko unean, behar bezala aztertzen da erabaki hori esportazioen kontrolaren menpekoa den. Zalantzarik izanez gero, aholkularitza eskatuko zaio Eragiketen zuzendaritzari.

**Piezak faltsutzearen aurkako prebentzioa**

BATZ Taldeak metodo eraginkorrak eta prozesu egokiak garatu, inplementatu eta mantentzen ditu, entregatzen dituen produktuetan faltsututako pieza eta materialak sartzeko arriskua ahalik eta txikiena izan dadin.

**Diru-laguntzak**

BATZ Groupeko edozein sozietateren diru-laguntza eskaerak Taldeko Finantza Sail Korporatiboak gainbegiratuko ditu beti, araudia zuzen betetzen dela egiaztatzeko, kudeaketarako kanpo-aholkularitza jasota, eta diru-laguntzok egoki zuritzen direla ziurtatzeko, kanpo-ikuskapenen bitartez.

Herri Administrazioei eskatutako edo haietatik jasotako laguntzak egoki erabiltzen direla bermatuko da, haiek lortzeko baldintzak faltsutu edo xede zuten helbururako ez beste baterako erabili gabe.

**Kapital-zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako prebentzioa**

BATZ taldeak kapital-zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren gaineko estatuko eta nazioarteko legeriak beteko ditu, aplikagarri zaizkionak.

Horri begira ezarritako bezeroak ezagutzeko, informaziorako eta barne-kontrolerako neurriak aplikatuko dira, eta ahalik eta laguntza handiena emango zaie agintaritza eskudunei.
Delituzko edo legez kanpoko jardueretatik eratorritako kapitalak zuritzeko edo terrorismoa finantzatzeko eragiketak egin daitezen prebenitzeko eta saihesteko, Pertsonek arreta bereziz prebenitu beharko dituzte aipatu legez kanpoko ekintzekin lotuta egon litezkeen jokabideak.

### Interes gatazkak

BATZ Grouparen aburuz, enpresa osatzen duten Pertsonekin izan beharreko harremana leialtasunean oinarritu behar da, enpresan denek dituzten interesetatik eratorritako horretan. Ondorioz, Pertsonek Interes Gatazka oro ekidin behar dute.

Jarduera politikoa.

BATZ Groupeko edozein Pertsonak du eskubidea bere izenean kontu politikoetan parte hartzeko, baina beraren partaidetza politikoak ez du inolako loturarik izango BATZ Grouparekin.

BATZ Groupeko inolako sozietatek ezingo ditu legez kanpo finantzatu ez hautagai politikoak, ez eta alderdi politikoak ere.

Erabat debekatuta dago jatorri publikoko funtsak eta kredituak eskuratzea BATZ Groupeko Finantza Zuzendaritzaren aurretiko baimenik gabe.

**2022an ez da jaso inolako komunikazio edo salaketarik helburu horretarako ezarrita dauden kanalen bitartez.**

**Ekimen hauek bat datoz Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin**




# IX. GIZARTEA

## 9.1 GARAPEN JASANGARRIAREKIN ENPRESAK DAUKAN KONPROMISOA

**31.** - *Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

Mende erdi baino gehiago igaro da BATZ enpresak sozialki arduratsua eta ekosistema osoarekin konprometitua izateko konpromisoa hartu zuenetik. Etorkizuna arriskuan jarri gabe, egungo beharrei erantzuten dien industria-taldea da. Baina, batez ere, kooperatiba gisa sortu zen proiektua, ingurunearen eraldaketa sozioekonomikorako errotzearekin eta konpromisoarekin, hedapena eta mundu mailako izaera uztartzen jakinda.

### Gure ingurunean aberastasuna sortzen

Garapen ekonomiko eta sozialerako ekimenak sustatzen ditugu, integratuta gauden komunitateak errespetatuta. Gainera, munduko hainbat tokitan egoteak pertsonen prestakuntza nahiz trebakuntza sustatzen du, zuzenean zein zeharka, eta gure ingurune hurbileko jarduera ekonomikoa bultzatzen. Gure ustez, harro egoteko modukoa da gure ekimenak garapen jasangarriaren 2030 agendan zehaztutako helburuekin bat etortzea.

| BATZ GROUPEN ZENBAIT GIZARTE-EKIMEN ETA LANKIDETZA | |
|---|---|
| *Kulturarekiko eta kirolarekiko konpromisoa* | Kirolarekin eta kulturarekin lotutako ekimenak babestu eta sustatzen ditugu, babesle modura zein jarduera kultural eta kirol arlokoak antolatuz. |
| *Lana eta bizitza pertsonala bateratzearekiko konpromisoa* | Lana eta bizitza pertsonala bateratzea sustatzen dugu, ez gure barne-talentuaren kasuan bakarrik, baita kanpoko ekimenetan parte hartuz ere; Red Denbbora Sarean eta Novia Salcedo Fundazioan, besteak beste. |

| | |
|---|---|
| *Gizarte- eta lan-integrazioarekiko konpromisoa* | Mundukide<br>DYA<br>Formula Student<br>Aladina Fundazioa<br>Gazteleku Komunitate Garapenerako Elkartea<br>Dislebi Dislexia Elkartea<br>Adembi Esklerosi Anizkoitzaren Bizkaiko Elkartea<br>Kukumiku Fundazioa |
| *Gure inguruaren garapenarekiko konpromisoa* | Errota Fundazioa |
| *Beste ekimen batzuk* | Basque House Association<br>Mexikoko BATZek parte hartu zuen ingurumen-inpaktu handiko "San Juanico" Betegune Sanitarioa eremuaren kanpoaldearen garbiketan, hondakin ez-arriskutsuak biltzeko. |

## Dibulgazioa, balioa sortzeko motorra

Gure ezagutza transferituz, gure ingurunearen balioa sortzearen eta bertako garapena bultzatzearen aldeko apustua egiten dugu BATZen; izan ere, gure ezagutza zutabe erabakigarria dela uste dugu gure ingurunearekin loturak sortzeko eta garapen sozioekonomikoan laguntzeko.

| PARTE-HARTZEA JARDUNALDI ETA EKIMENETAN |
|---|
| ERROTA Fundazioa |
| BASQUE ECODESIGN CENTER |
| AIC |
| APD |
| CEBEK |
| CRE100DO |
| HEGAN (BASQUE AEROSPACE CLUSTER) |
| ERKIDE |
| BAI EUSKARARI ELKARTEA |
| Automobilový klastr MS kraje |
| Klub personalistů MS kraje |
| Ekokom |
| CEARC |
| AVEQ KIMIKA |
| Spanish Chamber |
| Automotive Group |
| Aderiac |
| Tres Naciones Industria Parkearen Giza Baliabideetako Batzordea |
| Aderiaceko Segurtasun Batzordea |
| Aderiaceko Gaikuntza Batzordea |
| Aderiaceko Lan Harremanetako Batzordea |
| Tres Naciones Industria Parkearen elkarri laguntzeko Batzordea |

## Etorkizuneko profesionalen alde apustu eginez

Sektorea etengabe eraldatzen ari denez, berarekin oso azkar aldatzen dira beharrezko kualifikazioen eskakizunak, bai egungo profesionalenak, bai etorkizunean sektorean sartuko direnenak. Zalantzarik gabe, talentua gaitzea eta erakartzea da industriak, oro har, aurre egin beharreko erronka nagusietako bat.
BATZen jarduerak egiten ditugu gazteek beren lehenengo lana lortu dezaten, baita gazteen artean dugun kokapena hobetzeko ere, gure misioa, ikuspegia eta balioak partekatzen dituzten gazteak erakartzeko. Ido horretan,
enplegu arloko azoketan eta foroetan parte hartzeaz gain, edo gure instalazioetara ikustaldiak antolatu, BATZek lan handia egiten du talentuaren dibulgazioan eta garapenean, trebakuntza, berrikuntza eta gaitzeko programekin lankidetzan aritzen baita bera dagoen herrialde guztietan; Prestakuntza Dualarekin hasi eta Formula Student bezalako proiektuetara artekoak hartzen ditu, non ingeniaritzako

ikasleek auto monoplaza bat garatzen duten nazioarteko zirkuituetan lehiatzeko. Era berean, prestakuntza- eta gaikuntza-zentroen eta unibertsitateen bisitak hartzen ditugu maiz.

| PARTE-HARTZEA JARDUNALDI ETA EKIMENETAN | |
|---|---|
| ***22ko martxoa*** | Úřad práce (Labor Authority) |
| ***2022ko apirila*** | Euskara planaren 20. urteurrena |
| ***2022ko iraila*** | 2022Vysoká škola báňská TU (university) |
| ***2022ko azaroa*** | 2022 Basque Circular Summit |

## Irabazi-asmorik gabeko elkarteei egindako ekarpenak

| EKARPENAK | |
|---|---|
| *Basque House* | RMB 2.262 |
| *ERROTA Fundazioa* | Sentsorez hornitutako instalazio fotovoltaikoaren dohaintza |
| *Igorreko Eskola* | Informatika-ekipoen dohaintza |
| *ELORRIO KIROL KLUBA* | 4.000 € |
| *DALACANDELA ELKARTEA* | 6.000 € |
| *ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK BIZKAIA* | 6.000 € |
| *MINUSBALIATUEN BIDAIDEAK EUSKAL ELKARTEA* | 6.000 € |
| *ASOCIACION SEGUNDA OPORTUNIDAD ANIMALES SIN HOGAR* | 2.000 € |
| *WOP* | 1.418 € |
| *AZEBARRI KULTURA ELKARTEA* | 2.000 € |
| *DEUSTUKO SALESTARRAK KIROL KLUBA* | 4.000 € |
| *LUTXANA ARRAUN ELKARTEA* | 6.000 € |
| *GAZTELEKU KOMUNITATE GARAPENERAKO ELKARTEA* | 6.000 € |
| *NORTE ELKARTEA (KIROL SUSTAPENA)* | 2.000 € |
| *SUNU GAAL ELKARTEA* | 6.000 € |
| *ADEMBI ELKARTEA* | 6.000 € |
| *ARANGOITI LHI GURASOEN ELKARTEA* | 2.000 € |
| *ASPARBI PARKINSON ELKARTEA* | 6.000 € |
| *DISLEBI DISLEXIA ELKARTEA* | 6.000 € |
| *GIBELEKO GAIXOTASUNAK DITUZTEN HAURREN ELKARTEA* | 6.000 € |
| *MUNGIAKO SASKIBALOI ELKARTEA* | 4.000 € |
| *URDANETA KIROL KLUBA* | 4.000 € |
| *GUREAK ELKARTE ANIMALISTA* | 2.000 € |
| *SOINU HAIZEAN ELKARTEA* | 2.000 € |
| *NUESTRO CLUB DENBORA LIBREKO ELKARTEA* | 2.000 € |
| *KULUMIKU FUNDAZIOA* | 2.000 € |
| *INTEGRAME DOWN, A.C.* | MXN 651,16 |

# X. AZPIKONTRATAZIOA ETA HORNITZAILEAK

*32. - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula*

2021ean hornitzaileen politika berria argitaratu genuen. Dokumentu horretan berariaz azaltzen ziren haiek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak, **etika korporatiboari, ingurumenaren babesari, baliabideak kontserbatzeari, giza eskubideei eta gizarte-estandarrei dagokienez.** Espero da guztiek **beteko dituztela alderdi horietan aplikagarriak diren lege-baldintza guztiak**, eta legea ez betetzea eragin dezaketen gertakariak edo egoerak saihestuko dituztela.

## INGURUMEN-ERANTZUKIZUNA, ERANTZUKIZUN SOZIALA ETA GOBERNU ONEKOA

